


KARKARA

ZENBAKI HONEKIN BATERA
+ GUKA ALDIZKARIA



MARIA ANGELES ETA LOURDES DORRONSORO

**ERRETIROA GERO
ETA GERTUAGO**



Bidaia eta ezkontzetara edo sagardotegira joateko.

22, 26, 28, 49, 55 eta 60 eserleku dituzten literadun autobusak ditugu.

Ubegun industria gunea, 4 AIA-ORIO

943-13 28 93 · 656 78 29 99 (Gabino)

Fax-a: 943-89 05 62

alustiza@autocaresalustiza.com



Olaskoegia z/g

AIA-ORIO

943-13 04 38

ANORGA TXIKI, S.L.

KRISTALDEGIA

Oria etorbidea, 4 LASARTE-ORIA

anorgatxiki@gmail.com

www.cristaleriaanorgatxiki.com

943-37 17 33 · 610 45 93 45

- Eraikin komertzialak
- Kristaldura bikoitza
- Segurtasun beirak
- Dutzako manparak eta ispiluak



Garbiketak

SERVICIO INTEGRAL DE LIMPIEZA

- Garbiketa orokorrak
- Etxebizitzak
- Bulegoak
- Obra amaierak
- Garajeak
- Ostalaritza

Santio erreka 41, Aia-Orio

636 18 82 92 / info@lurretik.es

edaritegia **Antilla** *jatetxea*

Abeslari kalea, 2 ORIO

943-83 23 09

- Menuak
- Plater konbinatuak
- Errazioak
- Ogitaratekoak

Pelotari, 5 · ORIO

943-83 00 34

autolan13@hotmail.com

AUTO - LAN C. B.



arkaitz taberna

•••••

- EGUNEKO MENUA
- OGITARTEKOAK
- PINTXOAK
- PLATER KONBINATUAK
- KARTA

Terma ederrarekin giro ezin hobea

abeslari kalea 6 - 943-83 16 57



Zerbitzu teknikoak 24 ordu

iturgintza · gasa · berogailuak

- Komun eta sukaldeen erreforma
- Galdara eta termo elektrikoaren instalazioa
- Ur-jarioak aurkitu eta konpondu
- Bainujontzia kendu eta dutxa jartzea
- Zoru erradiatzailea

Arrantzale kalea, 3 · ORIO

fontana-jul@hotmail.es

www.fontaneria-fontana.com

943-53 98 88 · 661 26 28 28

azkue

karrozeriak

Ubegun industrialdea, 7 AIA-ORIO

943-83 51 86

Carmen eta Txomin

ARRAINDEGIAK

TXOMIN ARRAINDEGIA

Eusko Gudariaren kalea, 44

943-83 27 47

CARMEN ARRAINDEGIA

Arizaga kalea

943-83 05 37





KARKARA 434

2021-ABENDUA

AZALEKO ARGAZKIAREN EGILEA:
ARNAITZ RUBIO APREA



Aurkibidea

- | | |
|---|--|
| <p>5 Iritzia Aitziber Arzallus
<i>Azpeitiar bat Orion</i></p> <p>6 Hitz tantak Iñigo Gaiton
<i>Mertxe eta Juanjo Curiel</i></p> <p>8 Izpiak eta hizkiak
Joxemari Olasagasti Arruti
<i>Jiva hirian ere, tranpetan</i></p> <p>10 Gutunak</p> <p>13 Herrian galdezka</p> <p>14 Elkarrizketa Iñigo Gaiton
<i>Maria Angeles eta Lourdes Dorronsoro</i></p> <p>23 Ikasleak idazle
Lardizabal Herri Eskola
<i>Gutun bat, barre bat</i></p> <p>25 Iritzia
Aritz Pardina
<i>Esperimentua</i></p> | <p>26 Oroimenaren kutxa Iñaki Iturain
<i>Bertsoak eta arrauna</i></p> <p>30 Akuilua hartuta Iker Apaolaza
<i>Iritsi da eguna</i></p> <p>32 Erreportajea Onintza Lete Arrieta
<i>Emakume korrikalariak</i></p> <p>37 Argazki galeria Aitziber Arzallus</p> <p>39 Osasuna Izaro Isidro
<i>Buruko mina edo zefalea</i></p> <p>41 Euskara Danbolin Musika Eskola /
Txurrunmuski
<i>Nolako Orio nahi dugu hamar urte barru? (IV)</i></p> <p>42 Plazan bazan</p> <p>44 Zerbitzuak</p> <p>45 Agenda</p> <p>46 Hasi bertsotan Iñaki Verhegge</p> |
|---|--|

KARKARA



Argitaratzailea

Urolako Komunikazio Taldea
Koop. Elk.
Soreasu 1. 20730
AZPEITIA
943-83 15 27
karkara@karkara.eus
www.karkara.eus

Erredaktoreburua

Aitziber Arzallus
Erredaktore taldea
Onintza Lete Arrieta
Iñigo Gaiton
Diseinu arduraduna
Maria Lopez
Publizitatea
Leire Martija

Zenbaki honetako kolaboratzaileak

Aritz Pardina
Iñaki Iturain
Izaro Isidro
Naiara Larrañaga
Rikardo Uzkudun

Banatzzaileak

Endika Ruiz (Orio)
Manex Dorronsoro (Orio)
Eli Irureta (Aia)

Inprimategia

Antza Inprimategia
(Lasarte-Oria)
Lege Gordailua:
SS-346/90
ISSN: 1132-1105
Tirada: 3.450 ale



Gipuzkoako Foru Aldundia



ORIO



AIAKO
udala



**IGLESIAS
SARRAILAGILEAK**

iglesiasserrajereros@yahoo.es
www.iglesiasserrajereros.com
Erribera kalea, 14 • ORIO
637 72 33 08

- Ateak irekitzen ditugu
- Sarraila-zilindro aldaketak
- Ateak ixteko malgukien aldaketa
- Komunitateentzako zerbitzua

24orduko zerbitzua

Gabon
TABERNA

Eusko Gudarien kalea, 7
943-83 06 09



Joseba
AROTEGIA • CARPINTERIA

687 683 427
josebaarotza@gmail.com

ATEAK
ZOKALOAK
ARMAIRUAK NEURRIRA
LEIHOAK
ESKAILERAK
AROTEGIA OROKORREAN



GARMENDIA

Higiezin Agentzia
Aholkularitza
Aseguruak

943-83 44 66 • 688 75 59 48
Ibai Ondo, 1 • ORIO
info@egarmendia.com



KAİOA

kaioa_denda
www.kaioa.es

**ITZIAR
KIROLAK**

Eusko Gudarien kalea, 23
ORIO
943-83 31 03



%100 etxean egina
**PIZZERIA
KALETA**

Arrantza kalea, 10 943-24 89 46



Kolon Txiki
edaritegia • jatetxea

Herriko Enparantza 4
ORIO
Tel.: 943-83 00 44



**KATU
HORIA**
albaritaritza klinika

ESTROPALARIA, 10
20810 ORIO
tel. 943 11 66 99

LARRIALDIAK
668891129



**kutixi
kafetegia**

Aritzaga 9 • ORIO • 943-13 15 17



**LASTER
DESATASCOS**

- Libraketak
- Hobi septiko eta putzu beltzen garbiketa
- Uholdeetako uren hustuketa
- Teilatu hodian garbiketa
- Saneamendu sareen ikuskapena
- Puzkatutako hobien geolokalizazioa
- Ur jario atzematea
- ...

desatascos@desatascoslaster.com
www.desatascos.com

24orduz 688 88 65 36 (Larrialdia)

Abaromendi 3, 20810 ORIO • Sagar Erreka 21-A, 20590 SORALUZE • 943-75 14 31 (bulegoa)

Azpeitiar bat Orion



AITZIBER ARZALLUS

Goiko argazkiari segundo batez begiratu badiozue, honezkero konturatu zarete ez naizela oriotarra. Ez Orion jaiotakoa, ez Orioko bizilaguna, nahiz eta KARKARAn nabilenetik nire herrian baino denbora gehiago pasatzen dudan hemen.

Oraintxe dira bi hilabete Kultur Etxeko erredakzioa lehendabiziko aldiz zapaldu nuela, eta aitortuko dizuet dezenteko errespetua ematen zidala hemen lanean hasteak. Esango duzue normala dela, lantoki berri bateko aurreneko egunek urduri edozein jartzen dutela. Ados. Baina hori baino gehiago zen, zalantza serioak nituen, eta arrazoiak ere bai horretarako.

Izan ere, ez dakit zuei zer irudituko zaizuen, baina niretzat nahiko xelebrea da egoera: azpeitiar bat Orioko herri aldizkarian jardutea, oriotarroi zeuen herriko gorabeherak kontatzen, herriko martxa ezagutu ere egiten ez dudanean. Eta Orio diot, bulegoa Orion daukagulako, baina berdin-berdin esan nezake Aia.

Bi hilabete pasatu dira ordutik, bi aldizkari ere egin ditugu, eta hemen segitzen dut. Hasiberriaren karteltxoa soinean daramat oraindik, kostatuko zait kentzea, baina pixkanaka-pixkanaka ari naiz Oriora egiten, edo hori pentsatu nahi nuke. Nire zorionerako, arraun denboraldia bukatu eta gero iritsi nintzen hona, azpeitiarra izanda, arraun kontuak ez baititut batere kontrolatzen; jarriko naiz horretara ere, baina... Hala ere, lehendabiziko egunean, iritsi eta bi ordurako, Arraunetxan nintzen, arraun surfari buruzko prentsaurreko batean.

Ordutik, egunerokoa nobedade izan da niretzat, egunero ikasi edo ikusi dut zerbait berria, egunero ezagutu norbait. Joan naiz Andatzara, Ortzakara, Urdanetara eta Aginagara; ikasi dut Oriotik Aiara igotzeko gutxienez hiru bide badaudela, eta azpeitiarrok erabili ohi duguna luzeena dela; badakit Orioko gizonezkoen traineru nagusiaren entrenatzailea nor den, baita patroia berria nor izango den ere; ikasi dut Orioko Udalean zer eskatu behar diodan nori, nahiz eta udaletxean bertan oraindik galdu egiten naizen; badakit Aiako gorabeheraz galdezka nori hots egin diezaiokedan; ikasi dut ibaiari *errio* esaten diozuela eta eliz atariari *zimitorio*; ezagutu ditut aldizkarian kolaboratzen dutenetako batzuk, oraindik denei aurpegia jartzen ez dizuedan arren; badakit kafe ona non har dezakedan eta patata tortilla pintxo goxoena non ateratzen duten...

Ekarri nituen zalantzak eta beldurrak pixkanaka-pixkakana desagertzen ari dira, espero nuena baino erosoago sentitu naizelako, horrela sentiarazi nauzuelako. Eskerrik asko! Eta ez zaitezte nirekin gaiztoak izan hanka-sartzeren bat egiten dudanean, egingo ditut eta. Gogoan izan Orion dabilen azpeitiar bat naizela. ■■■

**KOSTATUKO ZAIT
HASIBERRIAREN
KARTELTXOA KENTZEA,
BAINA ARI NAIZ
ORIORA EGITEN**

Mertxe eta Juanjo Curiel

TESTUA: AITZIBER ARZALLUS

ARGAZKIA: IÑIGO GAITON

11 urte eta gero, Zaharren Babeslekuko tabernaren ardura utzi egin dute Juanjo (Orio, 1973) eta Mertxe Curiel (Orio, 1977) anai-arrebek. Urriaren 31n agurtu zituzten bezeroak, malko artean. Ordutik hilabete pasa den arren, eztarriko korapiloa askatzeke dute oraindik. Kosta egiten zaie hitz egitea.

Ohitu al zarete egunerokotasun berrira?

Mertxe Curiel: Hutsune galanta sumatzen dugu. Urte asko izan dira, bizipen asko. Burua oraindik han daukagu. Kalera irtendakoan ere, beste konturik ez: bat galdezka etortzen zaizula, hango norbaitekin topo egiten duzula...

Juanjo Curiel: Okerrena ama dabil.

M. C.: Hasieran hirurok hasi ginen, eta nahiz eta amak azken urteetan ez zuen lan egiten, etorri egiten zen. Askok lagundu digu, eta taberna uztea kolpe handia izan da harentzat.

Agurtzeko luntxa eman zenuten...

J. C.: Luntx bat emanez hasi ginen, eta modu berean bukatu nahi izan dugu.

Nolakoa izan zen agurtzeko momentua?

M. C.: Oso hunkigarria.

J. C.: Luntxak iraun zuen bitartean aguantatu genuen, baina bukatu zenean, denok lehertu ginen.

M. C.: Hasi ginen denok negarrez, eta...

Zuek eta bezeroak, denok?

J. C.: Bai, denok.

M. C.: Normala ere bada, eguneroko jendearekin tratatu handia izan dugu, eta kariño handia hartzen diozu jendeari.

Hori al da Zaharren Babeslekuko taberna beste edozein tabernatatik bereizten duena?

M. C.: Hori ere bai. Denetariko bezeroak izan ditugu, baina egunerokoak asko, egunero-egunero ordu asko pasatzen dutenak.

J. C.: Beste tabernetan, egoteko kontsumitu egin behar izaten da, baina Zaharren Babeslekuan, ez. Badago jendea egun guztia han pasatzen

duena, etxean bakarrik egotea baino nahiago duelako.

Zergatik ez zarete aurkeztu tabernaren kudeaketa hartzeko lehiaketara?

J. C.: Guk baldintza batzuk geneuzkan, eta orain baldintzak beste batzuk dira, aldatu egin dituzte. Kontuak egin nituen, eta niri ez zaizkit ateratzen. Baldintza horietan taberna aurrera ateratzea ez zait bideragarria iruditzen.

M. C.: Pena handiz, baina zenbakiek ez badute ematen, ez dute ematen.

Eta duela 11 urte, nolatan animatu zineten tabernaren ardura hartzera?

M. C.: Aukera polita ikusi genuen, eta bion artean hitz egin eta aurkeztea erabaki genuen. Esperientzia bageneukan, ni 14 urte nituenetik nabil ostalaritzan, eta anaia ere ibilitakoa da.

J. C.: Orduan hemezortzi aurkeztu ginen lehiaketara, oraingoan bi bakarrik izan dira.

11 urteotan asko aldatu al da tabernako martxa?

M. C.: Erabat. Tabernak, orain, ez dauka zerikusirik guk hartu genuenekoarekin; guk altxa dugu hori.

J. C.: Aurretik zeukatenek eguerdian itxi egiten zuten eta ez zuten otordurik ematen. Guk 10:00etatik 21:00etara zabalik izan dugu beti, asteen zehar eguneko menua eman izan dugu, eta asteburuetan afariak ere bai.

Zein izan da urte hauetako unerik gogorrena?

M. C.: Dudarik gabe, pandemia.

J. C.: Eta aurretik, plazako obrak.

Eta momenturik onena?

M. C.: Momentu onak asko, baina ni jendearekin gelditzen naiz, egin ditugun harremanekin, hase-arealdi batzuk gorabehera, ondo konpondu baikara. Orain ari gara horretaz konturatzen, urteetan eman diegun kariño guztia bueltan jasotzen ari garenean. Horixe da egoera honetatik positiboan atera dezakegun gauza bakarra.

Tabernaren arduradun berriarentzako aholkuren bat?

J. C.: Pazientzia izateko, beharko du eta. ■■■



Jiva hirian ere, tranpetan

ARGAZKIA ETA TESTUA: JOXEMARI

OLASAGASTI ARRUTI

Sobietar Batasuneko parte izan zen Uzbekistan, eta gaur egun errepublika independentea da. Tashkent du hiriburua. Hantxe kokatzen da gizateriaren ondare izendatu zuten lehen lekua: Jiva hiri zoragarria, hain zuzen. Hiri hartan, Itchan Kala auzo zaharreko Juma meskitan ateratako argazkia da honako hau (2019. urtean).

Bi emakume, eserita, kolore ederrak dituzten jantziak soinean, dotore, kontu-kontari, lasaitasun osoan. Kameraren klika entzun bezain pronto, tranpetan ari ote nintzen galdetu nion neure buruari, eta bai, garbi jokatzetik oso urrun nenbilen. Atzetik, beraiek konturatu gabe, beraien baimenik gabe aritu nintzen eta.

Baina ez nintzen kapaz izan irudia ezabatzeko, eta orain hemen dago, zuen denon eskura.

Han eta hemen ibiltzen gara argakiak ateratzen, askotan eta askotan, adibide honetan bezalaxe, tranpetan. ■■■





Esker ona bezero guztiei

JUAN JOSE CURIEL

2010eko urriaren 1ean, ilusioz eta gogo handiz hasi ginen Zaharren Babeslekuko tabernan lanean.

Hasieran, ama, arreba eta hiruron artean aurrera ateratzeko asmoa genuen, baina denbora pasatu ahala, lankide gehiagoren beharra izan dugu. Denon artean egin dugu aurrera, langileez gain, jubilatuta eta pentsiodun eta era guztietako herritarrekin; baina, batez ere, jubilatuta eta pentsiodunekin. Elkar aguantatu dugu, elkar goxatuz, beti umore onean.

Orain, agur esateko ordua iritsi zaigu. Pena handiarekin, baina...

Eskerrak eman nahi dizkiet Orioko Udalari, herri guztiari, Zaharren Babeslekuko zuzendaritzari eta bezero guztiei; egunerokoei, eta aldika bisitatu gaituztenei, bezero fin eta leialei. Eskerrak guztioi, egunero elkar aguantatzeko gai izan garelako, kar-kar-kar... Noski, eskerrak gure langile izan diren guztiei ere, eta bereziki nire familiari, egun goxoetan eta une gogorretan lagundu izanagatik.

Mila esker denei.

Sansilbestrerako izen emateari buruz

ORIOKO ATLETISMO TALDEA

Aurten, Orioko Atletismo Taldeak eta udalak antolatu dugu San Silbestre lasterketa, elkarlanean. Lasterketako ospakizun giroa izatea da gure ilusioa. Gutun honen bidez, ohar bat plazaratu

nahi dugu korrika egin nahi dutenentzat: *herrikrosa.eus* webgunearen bidez egin beharko da lasterketarako izen ematea, eta dagoeneko badago horretarako aukera. Inskripzioak zortzi euro balioko du, eta trukean, dortsala eta kamiseta emango dizkiegu korrikalari guztiei. 14 urtetik gorakoek bakarrik eman behar dute izena, 2tik 13ra bitartekoentzat parte hartzea libre da. 11:00etan haur eta gaztetxoek lasterketa hasiko dugu, eta 12:00etan 14 urtetik gorakoena.

Herriarroi eskerrak zuen babesagatik

AMAIA GOZATEGI URBIETA

Lerro hauen bidez, herriarroi eskerrak eman nahi dizkizuet zuen animo eta babesagatik. Urriaren 9an epaitua sentitu nintzen Mandalako nire kideen aldetik, Kultur Etxean egindako agerraldi publikoan. Han, Mandalan izaten ari garen desadostasunen inguruan aritu zen Mandalako lehendakaria; bere bertsioa eman zuen, daukagun barne gatazka samurtzen batere laguntzen ez duten akusazioak eginez. Badakigu horrelako egoeretan ez dela egoten arrazoi bakar bat; denok dugu gure ikuspuntua eta arrazoiak adierazteko askatasuna, baina ez zitzaizkidan batere egokiak iruditu modua eta lekua, jakinda, testuinguruaren arabera, ekintzek azalpen edo esanahi bat edo bestea izan dezaketela. Argi utzi nire nahia

egoera hau konpontzea dela, ez gehiago korapilatzea herritarrek gatazkaren parte eginez, bataren edo bestearen alde jarriz. Esan, abokatu bitartekari batekin harremanetan nagoela egoera konponbidean jartzeko. Uste dut hori dela bidea, eta ez epaiketa publiko bat. Azken hamarkadan Mandalan egin dudan lana bihotzez eskertu didazue behin eta berriz, eta hori hor geratuko da betirako, herriarentzako onura nahi hori baita mugitzen nauena, eta horretan jarraituko dut elkarte batean edo bestean, edo beste bide batetik.

JAI OBERRIAK

- **Brennan Agulla Rodriguez.** Orion, urriaren 27an.
- **Manex Alberdi Alegre.** Orion, azaroaren 3an.
- **Ousmane Ndoeye Larrañaga.** Orion, azaroaren 9an.

HILDAKOAK

- **Emilio Renedo Salinero.** Orion, urriaren 30ean. 87 urte.
- **Consuelo Lopez de la Cruz.** Orion, urriaren 30ean. 92 urte.
- **Serafina Perez Oliden.** Orion, urriaren 30ean. 91 urte.
- **Trinidad Martin Vallejo.** Orion, urriaren 30ean. 70 urte.
- **Joxemari Gozategi Errazkin.** Orion, azaroaren 7an. 70 urte.
- **Maria Pilar Huegun Lizarralde.** Aian, azaroaren 24an. 86 urte.

GUTUNAK: Karaktereak, gehienez: 2.000 (hutsuneak barne). KARKARAK eskubidea du gutuna laburtzeko. KARKARAK ez du argitaratuko izenik gabe datorren gutunik. Egileak hala nahi badu, ezizenarekin argitaratuko dugu; baina beti, guk egilea nor den jakinda. Gutunean norbait aipatzen baldin bada eta pertsona horrek gutunaren egilea nor den jakin nahi badu, KARKARAK esan egingo dio.


Argitaratu nahi diren gutunak KARKARARA bidali daitezke posta elektronikoz honako helbidera: karkara@karkara.eus edo erredakziora eskura ekarri -Orioko edo Alaioko Kultur Etxean- edo postaz bidali. Kultur etxea, 20810 Orio

Zentzuz erosi.
Ondo informatu zaitez. Ezagutu zure eskubideak.
Baztertu estereotipoak.



Zeu zara zure *influencer* onena.
#KontsumitzenJakín

MARKETIN DIGITALA



- WEB DISEINUA ETA ANALITIKA
- SEO LANAK ETA SEM KANPAINAK
- SARE SOZIALEN KUDEAKETA
- BIDEO KORPORATIBOAK
- POSTA ELEKTRONIKO BIDEZKO MARKETINA

GUKA       ZERBITZUAK

Soreasu 1, 20730 Azpeitia (Gipuzkoa) 943-81 38 41 • gukazerbitzuak@ukt.eus

Herriko festak eta pandemia.

Zer iritzi duzu? *Azaroaren 25ean bildutako erantzunak.




IGOR MENDIZABAL

Parranda egiteko gogo latza dut, baina panorama zailtzen ari da. Azken egunetan izan den positiboen igoerak kezka eragiten du, egia esan. Duela hilabete batzuk, egoera ona zenean, gure burua festak egiteko moduan ikusten genuen, eta orain, berriz... auskalo. Nik oso zaila ikusten dut festak egitea, beti ezagutu ditugun herriko festak, lehen bezala egitea. Aurten, behintzat, ia ezinezkoa. Tarteko zerbait bilatu beharko dugu... Gainera, sanikolasetan beti etortzen da jendea beste herrietatik, eta horrek ere ez luke lagunduko. Ez dute lan erreza udal ordezkariak erabakiak hartzen; zaila da gaiari tamaina hartzea. Etxekoek taberna dute, eta berriro, lehen bezala, neurri murriztaileak jarriko ote dizkieten beldur dira, datuek okerrera egin dutelako.



INMACULADA GONTAN

Niri betidanik gustatu izan zaizkit herriko festak, batez ere negukoak. Sanikolasetan aukera izaten da aspaldian ikusi gabeko jendearekin juntatzeko eta ondo pasatzeko, eta egia esan, beti asko gozatu izan dut. Orain ez gaude gazte garaian bezala parranda egiteko moduan, baina festek oraindik ere pizten didate ilusioa. Aurtengo festei begira, ba ez dakit, datuek okerrera egin dutela eta, larritasuna sartu zaigula dirudi, festetan gauzek okerrera egin dezaketelakoan. Pertsonalki, iruditzen zait eguneroko bizitzan ere jende askok ardura gutxirekin jokatzeko duela, eta orain festekin kezkatzen hastea... Ez dakit, gai konplikatu da. Agintariei dagokionez, iruditzen zait herri mailan ondo ari direla lanean, herritaren kolaborazioarekin.



ZIGOR ESOAIN

Iruditzen zait gizarte geroz eta individualistago batean bizi garela eta sozializatzeko eta harremantzeko sekulako beharra daukagula, horrek bizi gaituelako. Askotan, harremantzeko behar horrek arriskuari gain hartzen dio; hori da gazteoi gertatzen zaiguna, ez diogula horrenbeste begiratzen arriskuari, eta, aldiz, bai, daukagun behar horri. Hala ere, ez dut uste hori gazteen kontua bakarrik denik, horren gazte ez direnak ere behin baino gehiagotan ikusi ditugulako arriskutsuak omen diren egoeretan. Baina errazena, beti bezala, gaztea eta festazalea kriminalizatzea da. Eta nire galdera da: lanerako moduan bagaude, eta lanera jendez gainezka doan autobus batean joan bagaitezke, zergatik ez gara festarako moduan egongo? ■

BETI ZUREKIN GIPUZKOA

943 903 450

Bertako Igogailuak-ekin, urteko 365 egunetan 24 orduz izango duzu gure zerbitzua.
Salbuespenik gabe.



IGOGAILUAK
ZARAIK



ZULORA JAUSITAKO
OBJEKTUAK
BERRESKURATZEA



HARRAPATZE
EGBERAK

bertako
igogailuak | zerbitzuak
www.bertako.eus



"Lehengotarrak garagu, lanari emanda gustura bizi izan gara"

MARIA ANGELES ETA LOURDES DORRONSORO DENDARIAK

Bizimodua dendako martxaren bueltan egin ondoren, erretiroa hartzeko ordua hurreratzen ari zaie "esparreneko" hiru anai-arrebei. Berrogeita hemezortzi urte pasatu dira dendako ateak ireki zituztenetik, eta Maria Angelesek eta Lourdesek hizketa biziarekin ekarri dute gogora han bizitako guztia.

Testua: **Iñigo Gaiton**. Argazkiak: **Arnaitz Rubio Aprea**.

Nola deitu behar diogu dendari, Dorronsoro edo Spar?

Lourdes Dorronsoro: Gu *esparrenekoak* izan gara denda ireki genuenetik.

Noiz ireki zenuten negozioa?

Maria Angeles Dorronsoro: 1963ko urriaren 18an. Aita arrantzalea zen, *Zeruko Ama* baporeko bazkidea. Gu lau anai-arreba gara, bi mutil eta bi neska. Aitak esaten zuenez, nahi izanez gero behintzat, mutilek bazuten lana baporean, eta bi alaboi ere lagundu egin nahi zigun, ofizioaren bat izan genezan. Hala, eraikin hau egin zutenean, lokala erosi zuen, denda jartzeko ideiarekin. Nik 18 urte nituen orduan. Ama eta biok hasi ginen dendan lanean, eta geroago, aitaren laguntza ere izaten genuen, erretiratu eta itsasoa laga zutenean.

Beste ofiziorik izan al zenuen aurretik?

M.A.D.: Baporeko sarea josten ibili nintzen 14 urte nituenetik 18ra bitartean.

Aldaketa ona izan al zen zuretzat?

M.A.D.: Bai, bai, dendako martxa hasieratik nahia-go izan nuen.

Eta zu, Lourdes, noiz hasi zinen dendan lanean?

L.D.: Neska txikia nintzen negozioa ireki zutenean, 7 urte nituen. Umetatik ibiltzen nintzen hemen,

atzera eta aurrera, eta koskortutakoan, uda garaian-eta laguntzen hasi nintzen, eskolan oporrak hartutakoan. Hau izan da nire ofizio bakarra.

Hasierako garai haietan, erraza izan al zen bezeroak erakartzea? Zer harrera izan zuen denda berriak?

M.A.D.: Oso ona, jendea lehen egunetik etorri zen. Zabalduratu genuenean, mota honetako denda handiena izango zen herrian. Produktu aukera zabala eskaintzen saiatu ginen hasieratik, etxe bateko eguneroko martxan beharrezkoa den guztia bezeroen esku jartzen. Beti lan egin dugu autozerbitzu modura.

1963tik 2021era urte asko joan dira. Orio asko aldatu da urte hauetan guztietan, eta horren testigu zuzenak izan zarete.

M.A.D.: Jesus, herria ikaragarri aldatu da, bai. Lehen denok ezagutzen genuen elkar, den-denok. Orain, gazte jende asko etorri da bizitzera, eta kanpotarrak ere bai. Normala da aldatzen joatea, eboluzio naturala da.

Orain jende gehiago bizi da herrian, baina dendak ere lehen baino dezente gehiago daude. Zuen negozioaren-tzat, lehengo garaiak hobeak izan al ziren?

L.D.: Bai. Horrez gain, herrian diru gehiago mugitzen zen. Ez zen oraingo krisi konturik





Maria Angeles, bere betiko tokian eserita.

entzuten. Arrantzaleekin, adibidez, lan asko egiten genuen guk. Pentsa zenbat bapore zegoen lehen Orion. Itsasora atera aurretik, behar zituzten produktu eta janari asko hemendik erosten zituzten. Hala ere, ez dakit diruaren gauza edo ohitura kontua den, baina iruditzen zait lehen janariari garrantzia handiagoa ematen zitzaiola etxeetan.

M.A.D.: Dударik gabe.

L.D.: Hemen argi ikusten zen hori, batez ere amonek eta etxeko andreek egiten zituzten erosketetan. Haientzat janaria beste konturik ez zen izaten: erosketa egin, sukaldean denbora pasatu, familiarentat bizi... Orokorrean, sukaldean denbora gehiago egiten zen. Aisialdia indarra hartzen joan zen geroago, denbora librerako eskaintza zabaldu egin zen, eta gaur egun, nahiago dugu beste gauza batzuetan jardun, sukaldean denbora pasatu baino. Ez dago gaizki hori, aldatu egin dira garaiak.

Garaiekin batera, denda ere joan al da egokitzen?

L.D.: Saiatu gara horretan. Lehen txikiagoa zen, handitu egin genuen ondoko lokala hartuta. Produktuen eskaintzari dagokionez, saiatu izan gara beti onena eskaintzen eta produktu berriak sartzten, baina lehengo gauza batzuk mantendu ditugu, eta jendeak eskertu izan digu. Kandelak erostera, adibidez, etorri izan da jendea hona espresuki, beste inon horrelakoak ez daudela esanez. Bitxia da.

Zertan asmatu duzue urte hauetan guztietan? Zertan ibili zarete fin?

M.A.D.: Jendearen ondoan egoteko ahalegina egin dugu. Konfiantzarekin eta gertutasunarekin tratatu ditugu bezeroak beti.

L.D.: Bestalde, orain denda askotan aurki daiteke produktu eskaintza zabala, baina lehen ez. Hasieratik saiatu ginen dendan ahalik eta produktu desberdin gehien izaten.

Spar frankiziaren barruan urte asko egin dituzue.

M.A.D.: Hasieratik egon ginen frankiziaren barruan, lehen urteetatik.



Lourdes, dendako urdaitegian.

**L.D.:"ULERTZEN DUT
EROSOTASUNAGATIK JENDEAK
SALTOKI HANDIETARA JOTZEA"**

**L.D.:"LEHEN SUKALDEAN EGITEARI
GARRANTZIA HANDIAGOA EMATEN
ZITZAION ETXEETAN"**

**L.D.:"NEGOZIO BATEAN SAR
DAITEZKEEN ORDU GUZTIAK SARTU
DITUGU DENDAN"**

L.D.: Gero, arazo batzuen ondorioz, itxi egin zuten hemengo distribuzioa.

Zer du ona frankizia baten barruan egoteak?

L.D.: Babesa ematen du, eta produktuak prezio hobean erosten dituzu. Aldi berean, mugatzen zaitu produktuak bere katalogotik erostera. Azken urteetan libre ibili gara, eta horrek ere baditu bere abantailak, aukera handiagoa duzulako nahi duzuna egiteko.

Lehen aipatu duzuen modura, gizartearen kontsumo ohiturak asko aldatu dira. Multinazionalek irekitzen dituzten saltoki guñe eta denda handietara gehiago jotzen dugu gaur egun. Nola egin diozue aurre horri?

L.D.: Eguneroko bizitzak hartu duen abiadura eta martxa kontuan izanik, ulertzen dut erosotasunagatik (ordutegia, aparkalekua...) jendea saltoki handietara joatea. Dena den, eskertuko nuke erakunde publikoek komertzio mota desberdinen artean oreka eta harmonia mantentzearen alde lan gehiago egingo balute. Izan ere, pandemiak, beste gauza askoren artean,



Dendako argazki zahar bat, 'Oriyo beti txapeldun' karteltxoarekin.

bertako produktuak eta zerbitzuak gehiago baloratzen erakutsi digu.

Lehen aipatutako joeraren aurrean, gure bideari eusten saiatu gara, eta lortu dugu. Lokala gurea izanik, ordaindu beharreko gastu gutxi izan ditugu hilero, eta horrek negozioak errentagarri izaten jarrai dezan lagundu du. Lanak ere bai, noski: negozio batean sar daitezkeen ordu guztiak sartu ditugu, beti etxeko indarrarekin, beste langilerik gabe, hurbiltasuna, konfiantza eta abar eskainiz.

Denda nahi baino lehenago itxi beharraren arriskua sentitua al duzue inoiz?

L.D.: Bai. Eroski handia egin zutenean, Mendibeltz futbol zelaiaren ondoan dagoena, oso gaizki pasatu nuen. Nire lanpostua arriskuan zegoela sentitu nuen, baina, zorionez, atera gara aurrera. Eta hori, hein

"URTE HAUETAN GUZTIETAN GUREKIN JARRAITU DUTEN BEZEROEI ESKERRAK EMAN NAHI DIZKIEGU"

"OFIZIOAZ GAIN, BIZITZEKO BIDE BAT IZAN DA DENDA, GURE EGUNEROKO BIZITZA"

handi batean, gure bezeroen fideltasunari esker ere izan da.

Urte hauetan guztietan dendara etortzen jarraitu duten bezeroei eskerrak emateko aprobetxatu nahi nuke elkar-rizketa. Dendak 58 urte egin ditu irekita, eta badira egunero-egunero hemendik pasatu diren herritarak. Erraz esaten da. Itxitakoan pena hartuko dutela esaten digu adineko zenbait lagunek. Hartu-eman handia izan dugu herriko jendearekin, eta hori ederra da.

Lokalean gordeta dituzuen argazki zaharrei erreparatuz gero, urteen joanarekin zuen edadeko bezeroak hiltzen joan direla ikus daiteke.

M.A.D.: Bai, eta pena ikaragarria sentitzen duzu halakoetan, harreman estua izan dugulako haietako askorekin. Egunero-egunero hemen eta, hara, halako batean, falta.

L.D.: Ordua ailegatu, denoi bezala.

Egunero-egunero herriko jendearekin lan asko egin dituzue. Ez al da nekagarria egiten beti aurpegi berak ikustea?

L.D.: Ez, beti sortzen dira konbertsazio berriak. Denda txikiak hori du ona, hizketarako gairik ez dela falta izaten; eguneroko bizitzako kontuak-eta, ez da aspertzeko denborarik izaten, ez. Umetatik ibili naiz hemen atzera eta aurrea, beti jendearen artean, eta askotan esaten dut, ikasketarik ez, baina psikologian masterra egindakoa naizela! kar-kar-kar.

Hala ere, puntu batean, jendaurrean lan egitea nekagarria ere bada epe luzera. Egun petrala eduki arren, umore oneko agertzen saiatu behar duzu beti, atsegina izaten, eta hori kosta egiten da batzuetan. Horregatik, jai egunetan-eta, aparte samar ibiltzea gustatu izan zaigu, deskantsu pixka bat hartzeko.

Negozio batean sar daitezkeen ordu guztiak egin dituzue dendan, lehen aipatu duzuen bezala. Beti etxeoak aritu zarete lanean, beste inor kontratatatu gabe.

L.D.: Eskola zaharrekoak izan gara horretan. Denda irekitakoan, etxebizitza txiki bat ere jarri zuten lokalaren atzealdean gurasoek. Hantxe egoten ginen. Hala, larunbat arratsaldeetan-eta, bezeroek tinbrea jo eta atea irekitzen genien. Hura gehiegi zen, lotura ikaragarria. Gerora, ez dugu jakin izan langileren bat hartu eta lasaia



ibiltzen. Egia esan, gure buruaren nahikoa esklabo izan gara, oso lehengotarrak. Nik tarteka hartu izan ditut opor txikiak, baina Maria Angelesek ez, 58 urtean ez du oporrik izan. Oso aszeta da ahizpa, izaera indartsua du, eta ez du opor faltagatik sufritu.

Benetan?

M.A.D.: Inportik ere ez, egia esan. Ez dugu besterik ezagutu, lana eta lana, eta orduan ez duzu sufritzen. Igandetan kanpoan bazkariren bat egitea, horixe izan da nire kapritxo.

L.D.: Maria Angelesentzat denda izan da bere bizitza. Berak bizi izan du denda gehien, dudarik gabe.

M.A.D.: Duela urte batzuk gaixoaldi luzea izan nuen, eta orduan egon nintzen dendara etorri gabe hilabete luzez. Pixkanaka, hobera eginez, bizitzeko ilusioa berreskuratu nuen.

Zuen hitzak entzunda, ikaragarri eman dizue dendak.

L.D.: Bizimodua ateratzeko modu bat izan da, ofizioa, baina hori baino gehiago ere bai: bizitzeko bide bat, gure eguneroko bizitza.

Oporrik ia bat ere ez, egun osoa lanean eta, hala ere, kontentu. Konformatzen errazak dirudizue.

L.D.: Datorrena halaxe hartzen ikasten duzu urteekin, daukazunarekin bizitzen. Bizitza bera arduratzen da makilkadak emateaz, eta horren aurrean, saiatzen zara gauza txikiekin bizitzen eta gozatzen. Ez dago besterik.

Berriz bizitzeko aukera izanez gero, indar berarekin helduko al zenioke lanari?

M.A.D.: Oraingo ikuspegiak ematen duen talaiatik atzera begira jarrita, lasaixeago hartuko nuke lana. Baina hori orain ikusten duzu, egindako ibilbideari distantzia pixka batekin erreparatutakoan. Dena den, gustura bizi izan gara lanari emanda, ez dugu kexarik.

Bolada txar edo zailak ere pasatuko zenituzten hemen. Bateren bat ba al duzue bereziki gogoan?

L.D.: Pandemia, dudarik gabe. Niretzat, dendan bizitako egoerarik zailena pandemiak sortutakoa izan da. Jendea ero modura hasi zen janaria, komuneko papera... erosten. Zer izan zen hura! Zenbait produktu bukatu egin ziren, eta bezeroek gehiago erosi nahi... Ni argaldu eta guzti egin nintzen. Gainera, dendako kontuekin nahikoa estuasun ez, eta Maria Angeles kutsatu egin zen.

M.A.D.: Izurritea hasi eta aste gutxira eman nuen positibo, osasun krisiaren hasiera aldera.

L.D.: Ni goizaldera esnatu egiten nintzen ohean, oso kezkatuta. Aste haietan, jende asko hiltzen zen koronabirusak jota. Ahizpak ospitaletik telefonoz

esaten zidan ondo zegoela, baina... Oso gogorra izan zen.

M.A.D.: Ospitalean egon arren, nahikoa modu arinean pasatu nuen gaixotasuna, aparteko arazorik gabe.

L.D.: Denbora asko egin zuen bakartuta; hasieran etxean, gero erietxean, eta berriro etxean gero.

Aurrera begira jarrita, beldurrik ba al diozue denbora libre gehiegi izateari?

M.A.D.: Moldatuko gara. Deskantsatu, telebista ikusi, irakurri... Topatuko dugu zer egina.

L.D.: Irteeraren bat ere egin beharko dugu, Maria Angeles! Urrutira ez, baina bidaia motzak gustura egingo ditugu elkarrekin. Ilusioa egiten dit berarekin batera toki berriak ezagutzeak. Madrilen-eta izandakoak gara, baina horixe, egun batean joan eta hurrengoan etorri. Orain, denbora gehiago izango dugu.

Erretiroa hartzeko garaia hurreratzen ari zaizue.

Kostata iritsi al da?

L.D.: Lanean gehiago nekutzen garela antzeman dugu azken urteotan, baina keba, ohartzetako pasatu dira urteak. Ni 65 urterekin erretiratuko naiz. Hiru anai-arrebok lasai erretiratzeko beste eman digu negozioak, eta kontentu gaude horrekin.

Bukatzeko, kontatu gogoan duzuen pasadizo selebreren bat.

L.D.: Maria Angelesek askotan kontatzen du dena ireki zuten egunekoa.

M.A.D.: Aurreneko bezeroari opariren bat egiteko ilusioa zuen aitak. Dendara sartu eta eskuetan hartzen zuen lehen produktua erregalatzeko ideia izan zuen. Atea zabaldu eta emakume bat sartu zen aurrena, gogoan dut. Hari begira-begira egon ginen. Sardin zaharren atabala ikusi zuenean, hara jo zuen zuzenean, eta etxera eramateko moduan jartzeko eskatu zigun. Debalde eraman zuen sardin mordoska, kar-kar-kar.

L.D.: Sardina asko saltzen zen lehen, ikaragarri piloa. Orain, berriz, oso gutxi; ia bat ere ez.

M.A.D.: Hil kanpaiena ere nahikoa bitxia da.

Agonia-kanpaiak entzuten direnean, jendeak dendara deitzeko ohitura izan du, nor hil den jakiteko. Herri txikietako kontuak.

M.A.D.: "BEZEROEN ONDOAN EGOTEKO AHALEGINA EGIN DUGU URTE HAUETAN GUZTIETAN"



Maria Angeles eta Lourdes. Orduak eta orduak egin dituzte elkarrekin dendan.

Ez dugu aipatu, erretiroa hartutakoan, dendaren erreleboa besteren batek hartuko duen, edo ateak betirako itxiko dituzuen.

L.D.: Ba, hortxe gabilta, batekin eta bestearekin gauzak lotu nahian. Hasiera batean, ez dugu lokala saltzeko asmorik. Errentan jarri eta irekita jarraitzea

gustatuko litzaiguke guri, baina ikusiko dugu zer gertatzen den. Ez dugu ezer erabaki oraindik.

M.A.D.: Agurtu aurretik, berriro, urte hauetan guztietan gurekin izan diren bezeroei eta oriotar guztiei esker ona adieraztea gustatuko litzaiguke.

"Bi ta bi, lau, ta lau, zortzi!"

INÍGO GAITON

Betiko tokian eserita jarrita, Maria Angeles ia kantari ari da bezeroak emandako txanponak kontatzen: "*Bi ta bi, lau, ta lau, zortzi! Pasa barruaaaa...!*". Herritar gehienei egingo zaie ezagun haren doinua. Beste askok bezala, umetan amonari erosketak egitera laguntzen nion garaitik gogoratzen dut nik.

Erretiroa hartzeko garaia gero eta gertuago dute *esparreneko* hiru anai-arrebek, dendan bizitza osoa egin eta gero. Ofizioa lagatakoan, haiekin batera eramango dute lana eta,

batez ere, bizitza ikusteko eta ulertzeko modu bat.

Elkarrizketa egiteko bildu ginenean, Lourdesek askotan errepikatu zuen haiek "lehengotarrak" direla. Hau da, ahitzen ari den mundu tradizionalakoak. Gizarte modernoaren ekarrialdiarekin, herriko denda txikiek lanak dituzte martxan jarraitzeko, eta *esparrenekoei* ere tokatu zaie estu ibiltzea. Garai latzetan, eskola zaharreko pentsaera lagun izango zuten seguruenik, aurrera jarraitu ahal izateko. "Maria Angeles oso aszeta da",

aitortu digu Lourdesek, ahizparen indarrari azpimarra eginez.

Gure belaunaldikoentzat, normal(egi)a da hegazkin txartelak erostea, Bartzelonara izan edota munduaren beste puntara hegan egiteko. Ikuskera horretatik begiratuta, zaila da ulertzen Maria Angeles bezala, herriko oso gutxi aterata eta ia egunero lan eginda, bizitza betea izan eta zoriontasuna dastatu daitekeenik. Haren txanponak kontatzeko doinu alaiak, agian, emango digu horren arrastoren bat: "*Bi ta bi, lau, ta lau, zortzi!*". ■■■



Imanol Illarramendi
Aia (Gipuzkoa)

kortaberri.arotza@hotmail.com 665 70 33 47



Lizaso Dekorazioa

Eusko Gudari, 48 · ORIO · 943-83 07 84
itzilizaso@gmail.com

libe
dietetika
elikadura aholkularitza

943-53 64 94
697 23 86 56
libegarmendia@gmail.com
www.libegarmendia.com



Orio elikatuz Bizi

Eusko gudariak, 35 · ORIO
(sarrera Arrantzale kaleetik)



MARIJO

ILEAPAINDEGIA
Eusko Gudari, 8 behea · ORIO
943-13 47 29



Karta
Pintxo tradizionalak
Okindegia



Palota Kalea, 5 · 20810 Orio · Egin erreserba 943-53 61 27

MENDIZABAL
AROTZEGIA

Neurriko armairuak eta egurlanak

Altzerri bidea, Beti-Alai etxea · AIA-ORIO
943-83 11 75 · 645 70 84 91
mendi@arotzgi.net

OINARRI PODOLOGIA ZENTROA



Arrantzale kalea, 63 behea
ORIO
943-57 53 61
oinarri@podologia-oinarri.com
www.podologia-oinarri.com

PAKO IMAZ



PERTSIANAK
aluminioa
motorrak
automatismoak
konponketak

600 70 52 27 · 943-13 29 01
pakoimaz@hotmail.com · ORIO



narau
school & translations



www.narau-school.com

Eusko Gudari 29 - ORIO
943-83 11 16
648 97 64 70
info@narau-school.com



Garraio frigorifikoa
Nazionala eta Nazioartekoa




generala
garraioak

Ubegun industriagunea, 4
AIA-ORIO
943-89 4024 · FAX-a: 943-13 01 44



LARDIZABAL HERRI ESKOLA


Gutun bat, barre bat

Ba al dakizue zer esan nahi duen *Una carta, una sonrisa* esaldiak? Denok dakigun bezala, irailaren 19an La Palmako Cumbre Vieja sumendiak eztanda egin zuen. Erupzioak isuri duen labak eraikin ugari eraman ditu aurretik. Familia asko beren etxeetatik atera behar izan dituzte, arriskuan zeudelako. Horietako asko ezingo dira itzuli, dena galdu baitute.

Mila ikasle inguru atara zituzten uhartean zeuden hiru ikastetxeetatik. Zentro horietako bi sumendiaren haserreak suntsitu ditu, eta horren ondorioz, ikasle ugari geratu da eskolara joan ezinik.

Donostiako bi irakasle jarri ziren harremanetan eskola horietako irakasle batekin, eta *Una carta, una sonrisa* ekimena gauzatzea bururatu zitzairen. Gure ikastetxeko irakasle batek, lanera zetorren egun batean, irratan entzun zuen ekimen polit bat martxan zegoela La Palmako umeei karta bidez animoak emateko. Lardizabal Herri Eskolako ikasle eta irakasleoi ekintza ederra iruditu zitzaigun, eta lanean hasi ginen.

Maila guztietan azaldu ziguten zein zen ekimenaren helburua, eta banakako eskutitzak idatzi genituen bertakoei animoak emateko asmoz. Eskutitz horietan nor garen, zenbat urte ditugun, nondik idazten dugun eta beste zenbait gauza kontatu dizkiegu. Eta noski, helburua ahaztu gabe, animatu ditugu



egoera zail honi aurre egitera. Ez dezaten etsi, pentsatu dezaten laster bukatuko dela eta beraien bizitzak normaltasunera itzuliko direla.

Haur Hezkuntzako geletan, berriz, marrazkiak egin dituzte helburu berberarekin. Ekimen honi kolore pixka bat emateko asmoz, koloretako gutun azalak erabili ditugu. Izan ere, eskolako ama batek, berak soberan zituen gutun azalak ekarri zizkigun eskolara guk erabilera emango genielakoan. Eta begira ze erabilera berezia eman diegun! Correosen kutxa dotore bat erosi genuen, eta ondoren, gutun azal guztiak txukuntxukun bertan genituen. La Palmako helbidea jarri eta prest zegoen kutxa bidaltzeko.

Bide batez, hango umeekin harremana izateko bidea ireki dugu. Beraien esku utzi dugu eskutitz bidez erantzuteko aukera. Espero dugu laster egoera jasanezin hau bukatzea. Animo La Palmako jendeari! ■■■



XUBAN ETA EKAITZ

Gau Beltza

Arimen Gauda aspaldiko ohitura da. Lehen, kandlekin baserriz baserri joaten ziren; orain, etxeko ibiltzen dira goxokiak eskatzen. Lehen, etxeko trapu zaharrek moztortzen ziren eta kalabazak jartzen zituzten kale izkinetan, barruan kandela batekin; orain, berriz, gurasoek moztorroak erosten dizkiete umeei, eta oso beldurgarriak izaten dira.

Aian, aurtun, ez da lehen bezala ospatu. Guraso elkarteok kalejira bat egin zuten herrian zehar; zapzi pertsona zeuden ezkutatuta, eta aurkitzen bazenituen, goxokiak ematen zizkizuten.

Horretarako, ordea, zure beldur bat idatzi behar zenuen, bestela ez zizuten goxokirik ematen. Kalejira bukatu zenean, frontoian elkartu ginen, eta han, paperak sutara bota eta dantza egin genuen. Argi guztiak itzali zituzten, eta sua piztutakoan, ematen zuen zerbait erretzen ari zela. Dantza bukatutakoan, guk pentsatzen genuen goxokiak emango zizkigutela, baina bukatu zen, eta ez zizkiguten eman.

Orduan, ume batzuk etxeko etxe joan ziren goxokiak eskatzera.

Uste dugu jendeak nahiago duela Halloween, dibertigarriagoa delako, aspaldiko ohiturak alde batera utzi eta kontsumismora bultzatzen gaituen arren. Guk moldaketa bat egin genuen, bi ohiturak uztartuz, eta aitortu behar dugu biak gustatzen zaizkigula. ■■■

OPARITU TOKIKO INFORMAZIOA



bazkide@ukt.eus

B
BALEIKE

K
KARKARA

erlo
ERLO

MAXIXATZEN

**UROLA KOSTAKO
HITZA**

UZTARRIA

**ZARAUZKO
HITZA**

Esperimentua



ARITZ PARDINA

Irakurle hori, esperimentu hau proposatu nahi nizuke: herriko edozein puntutan zaudela ere, begiratu lurrera, eta hasi, oinez zoazen heinean, han ikusten dituzun zigarro puntak zenbatzen. Horixe egin nuen nik etxetik liburutegira nindoan goiz batean, eta berrehun metroan pila daitekeen zigarrokin kopuruak zinez harritu ninduen. Txikleak, listua, txotxak, oliba hezurak, pipa azalak eta maskarak ere sarritan aurki daitezke lurrian botata, eta horrek zer pentsatua eman beharko liguke.

Plaza berritu zutenean ere, guztiok ginen hain pozik, non, irekiera ospatzerako garaian, garrantzitsuena ahaztu baizitzaigun: lur berria zaintzea. Egun gutxira plaza zerri zegoen, zaborrez gainezka, eta, horrek, betiko ondoriora garamatza: zikinak garela, ez dugula guztiona den eremu publikoa zaintzen. Hala eta guztiz ere, lurrian ikus daitekeen hondakinen ehuneko esanguratsua ahoan ibilitakoa dela kontuan izanez gero (hori islatu nahi nuen hasierako zerrendarekin), gure axolagabekeria oso sakonekoa dela frogatu daiteke.

COVIDak ere ez digu, ez, ahoan izandakoarekin kontuz jokatzeko erakutsi. Iazko martxoko egun luzeetan, etxekook zur eta lur begiratzen genuen supermerkatu bidean zihoan jendea: batzuek musukoa kendu eta tu egiten zuten; besteek, berriz, zigarrotxoa amaitu bezain pronto muturra lurrera botatzen zuten; eta zenbaitek pipak janez arintzen zuen supermerkatu bidea. Hori ikusten genuenero, galdera berbera egiten genion elkarri: "Gogorrean ere ez al dugu ikasten?".

Ez dugu ikasten, nabaria da ezetz. Noski, zaila izango da zolan ekarritako pipa azala dela eta kutsatzea, baina, kaleen garbitasuna, izurriterik gabe ere gure osasunarekin hertsiki lotua dagoela esango nuke. Baina garbitasuna ez dugu aise gure ongizatearekin erlazionatzen, eta bitxia da, aitona-amonek txikitatik erakutsi ohi digutelako lurrian dagoena ez dela ahoan sartu behar. Aurkako lezioa, aldiz, COVIDa bezain irakasle zorrotzak ere ez digu kaskezurrean sartu.

Beraz, irakurle, zure buruari galdera bat egitea eskatuko nizuke: "Zer egin dezaket nik egoera hori hobetzeko?". Bada, egin daitekeena, kalea balioan jartzearen alde jokatzeko da. Zeren, tamalez, gaia ez da norberak ez zikintzearekin amaitzen, hori guztiok egin beharko baikenuke. Hortaz, kontzientziazioan egon daiteke gakoa. Hala, zeharka bada ere, egoeraren gain eragin positiboa eduki daiteke, eta behin eta berriz ernegatzen gaituen errealitatea aldarazi. Eta lasai: ez duzu kalean jendeari kargu hartzen hasi beharrik; zure eremuan izan dezakezun eragina aintzat hartuta, inguruan kontzientzia apur bat sustatzea kaleen zaintzaren alde pauso handia izan daiteke. ■■■

**KALEEN GARBITASUNA
GURE OSASUNAREKIN
ESTUKI LOTUA
DAGOELA ESANGO
NUKE**

Bertsolariak tostetan, arraunlariak bertsoetan



IÑAKI ITURAIN iiturain@gmail.com

ARGAZKIAK: KARKARA ETA UTZITAKOAK

1901eko maiatzaren 14an Orioko arrantzaleek balea ekarri zuten itsasotik, Kantauroi itsasoan harrapatu zen azkena. Urte bereko irailaren 9an, arraunlariek lehenengo aldiz irabazi zuten Kontxako estropada eta bandera. Orion, 1901ean bukaera izan zuen arrantza-molde batek: traineruan baleak harrapatzeak. Garai hartan sortu ziren baporezko arrantza-ontziak, eta trainerua arraun lehiarako geratu zen, norgehiagokarako, kirolerako. XX. mendearen lehenengo urteko bi egun haiek Orioko herriaren historiara pasatu ziren, eta herritarren egutegian iltzatuta gelditu. Geroztikako belaunaldietako oriotarren iruditeriaren eta identitate kolektiboaren parte dira. Arrantza eta arrauna dira Orion lan eta kirol sustraituenak; biak dira herriaren kultur ondarearen ikur inportanteak, eta askori sentimendu sakonak sortzen dizkiote.

Bai balearen kasuan, bai arraunaren historiarenean, gertaera gogoangarriak transmititzeko, eta denboran irauteko, giltzarria izan da bertsoa, tresna ezin hobea, belaunaldiz belaunaldi, ahoz



Mende-bete arraunean eta bertsotan jaialdiko parte hartzaileak, eta Malentxo, herriko kiroldegian

aho eta kontu-kantari gaur egun arte iritsi zaiguna.

1901etik mende batera, 2001eko urtea ere berezia izan zen. Orioko herriak memoria historikoa lantzeko ariketa kolektiboa egin zuen: azken balearen eta lehenengo arraun

**BERTSOA GILTZARRIA
IZAN DA GERTAERA
GOGOANGARRIAK
TRANSMITITZEKO**

garaipenaren mendeurreneko oroimen ekitaldi esanguratsuak antolatu zituen. Eta bietan, erdigunean izan zen bertsoa, bertsoen bidezko kontakizuna.

Maiatzaren 14an, *Balearen Eguna*, aurreneko aldiz Orion. Herri osoa antzoki bihurtu zen; herritarrek, festarako arrantzale jantzian apainduta, ondo interpretatu zuten mende bete lehenagoko arrantzaleen balentria, Iñake Irastorza aktoreak atondutako gidoia ondo betetz: Barrara joan ziren bost trainerutan arraunean, han zain zeukaten balearen bila;



Ibai Esoain eta Luxarbeko Julen Saizar, Basarriren 1944ko estropada-bertsokak kantatzen

herritarrek moilan itxoin zieten
 arrantzaleei, harrapaketa
 ospatzeko. Sekulako jendetza
 bildu zen egun hartako
 ospakizunean. Mirari
 Arruabarrena alkateak sei
 bertsotan egin zien bandoa
 herritarrei. Hona haietako hiru:
Larunbat honetan da/Balea
eguna/denon artean gogoz/
prestatu duguna/poza ta izen
onalemango diguna/ta beste
ehun urtez/ahaztuko ez
zaiguna.//Arrantzale jantzian
atera etxetik/hobe egin ezkeror/
goizean goizetik/balkoi eta
atari/jantzi bihotzetik/bahiak,
kaxak, otarrak/sarez
apaindurik.//Lana egin
dugunez/serio-serio/arrakasta
izango da/horren ondorio/festa
ondo igaroleskerrak, adiolo/gora
oriotarrak/ta gora Orio!

Irailaren 9an, berriz,
 Kontxako aurreneko

banderaren mendeurrenean,
 aukera paregabea zuten
 arraunlari oriotarrek
 mendeurrena garaipenarekin
 ospatzeko: alde zituzten
 bandera irabazteko baldintza ia
 guztiak, aurreneko igandean
 hamar segundoko alde
 kendua ziotelako bigarren
 ontziari. Herrian dena prest
 zegoen ospakizunerako.
 Udaletxean alkateak udal
 langileak kolore horiko globoak
 puzten jarri zituen, igandean
 udaletxeko teilatutik 2.001
 globo askatzeko plazako arraun
 zale Orio-zaleen gainean.
 Ongietorria egin zitzaizen
 mutileri, baina zapore mikatza
 izan zuen jaiak, malko gehiago
 izan zen irribarre baino. Ez zen
 banderarik izan; oriotarrek
 bigarren egin zuten.

Hala ere, bi ekitaldi berezi
 antolatu ziren, arraunaren 100

urteko ibilbide loriatsua
 oroitzeko eta omentzeko:
 azaroaren 11n bazkari bat
 kiroldegi zabaldur berrian,
 Kontxako estropadan inoiz
 parte hartutako arraunlari
 bizirik zeuden guztiak elkartzea
 bilatu zuena; 381 bazkaltiar
 elkartu ziren.

Bezperan, azaroak 10,
 kantaldi berezi bat izan zen:
 estropada-bertsos musikatuen
 emanaldia, bertan parte hartu
 genuen askorentzat ahaztezina,
 emozio handikoa izan zelako.
 Egun hartan, herriko
 bertsozaleek arraunlarien ehun
 urteko historia (1901-2001)
 kontatu zuten, oroimenez eta
Oriominez, kantu-kontari,
Mende-bete arraunean eta
bertsotan izeneko jaialdian,
 kiroldegiko sabaitik arraunean
 irabazitako ehunka bandera
 zintzilik zirela.

Hamaika kantarik, bederatzi bertso-sorta abestu zituzten. Kantariak aurkezten eta bertsoen arraun giroko istorioak azaltzen, 100 urteko amona zahar bat aritu zen: Kontxita, Marije Gurrutxaga aktore oriotarrak umore handiz ederki interpretatutako paperean. Haren iloba Alex Mateos gaztetxoak lagundu zion lan horretan, amamaren gurpil-aulkia mugituz eta txantxa-giroko solasak eskainiz.

Ehun urteko historian, bertsolariak tostetan eta estropalariak bertsoetan kulunkatu ziren. Emanaldiari herriko Salatxo Abesbatzak eman zion hasiera, bertso hauekin:

Mila bederatzirehun/ta lehenengo urtian/irailaren

beatzi/garren egunian/Donostia aldeko/barraren aurrian/Oriok irabazi/bandera airian.//Sei traineru joan ziran/patroi banarekin/mutil bizkor bikainak/guztiz onarekin/ Manuel Olaizolak/bere mutilekin/historia eder honi/ gogoz zion ekin.//Horrelaxe hasi zan/gure historia/gaur kantatu nahi degu/horren memoria/ hortxe da zuentzako/gaurko oparia/danak egin dezagun/ arrasto horia.

Ehun urteko historiaren bertso jarrien saioa hasteko, Olluaneko Jose Mari Urkizu zenak Gaztelu bertsolariaren 1916ko bertsoak kantatu zituen, donostiarrek oriotarrei 1915ean San Martin kalean egindako entierroari eta 1916an, oriotarrekin patroi Manuel

Olaizola zutela, bi arraunlari –Txokolate eta Txolarra– estropada bukaeran zutitu eta zia eginez (*botando*) airean irabazitako banderari jarriak.

Ondoren, Xabier Sukiak, 1923ko bertsoak kantatu zituen, Antonio Maria Uranga patroiak irabazitako banderarenak: *Otegi aurretikan, Murgiondo ankian/ gaztedia bikaña biyen bitartian/ oyek danak zuzentzen Uranga atzian/lasai joan ots egiñaz noizik bakoitzian/aurtengo premiya zeukagu etxian.*

Juanito Urkizuk, Jose Mariren anaiak, estropada giroan getariarren eta oriotarren artean garai batean izan zen grina erakusten duten bertsoak abestu zituen, 1911n getariarrak Orioko jendeari bandera erakustera Mendibeltzera etorri zirenekoak.

Jon Sarasuak Fabian Loidi apaiz bertsolariarenak kantatu zituen, 1930eko hamarraldian indarrean izan ziren arraunlari bakarreko batel estropadetan Txokolatek, Erramon Linok eta Inazio Sarasuak eskuratutako garaipenen gainekoak. Lehenengo biak bizirik ziren jaialdiaren egunean 97 urterekin; Inazio Sarasua zena, berriz, Jonen aitona zen.

Neuk ere hartu nuen parte: Pello Aranburu *Saikolaren* 1942ko bertsoak kantatu nituen, Domingo Mitxelena *Beltza* patroia ibili zen garaikoak.

Ibai Esoain eta Julen Saizar *Luxarbe* zenak, bi ahotsetan,



Oihana Alkorta zena, Inazio Sarasuaren garaiko Axentxio Txankaren bertsoak abesten.



2001ean, Orioko herriak 1901eko bi egun historiko oroitu zituen, ospakizun bidez: maiatzaren 14a, Bailearen eguna, eta irailaren 9a, Kontxako lehen banderarena.

Basarriren 1944ko bertsoak interpretatu zituzten, 1940ko hamarraldian patroi *Txato*, *Rubio* eta Mitxelena ibili ziren garaikoak.

Oihana Alkorta zenak Axentxio Etxabe *Txanka* bertsolariarenak abestu zituen, Inazio Sarasua patroi zela Oriok izandako garai onenetakoak.

Sonia Fernandez eta Eneritz Erkiziak Manuel Lasarteren bertsoak kantatu zituzten, 1983an Oriok irabazitako 25. banderari jarriak, Orio saikatzearen kontra protestan Kaiku, Castro eta Zumaia jokatu gabe geratu zirenekoak.

Eta, bukatzeko, Eusebio Lasartek Juan Mari Larrañaga *Txikiri* kantatu zion, 1998an hildako Orioko patroi zarauztarrari Eusebiok berak eskainitako bertsoak.

Bertsoen doinu gehienek bazuten herriaren ukitu bat. Haien interpretatzen hiru musikari bikain aritu ziren: Amaia Gutierrez biolinarekin, Jose Ramon San Sebastian gitarrarekin eta Xabier Zabala teklatuan. Jose Ramonek, Patxi Etxeberriaren hitzekin, arraunlari oriotarrei sortutako *Gora arraunlariak* ereserkia plazaratu zuen. Jaialdiari bukaera lau bertsorekin eman zion Manuel Lasartek, umorez: "...*ea holaxe elkartzen geran, hemendik ehun urtera*", eta Jon Sarasuak bertso hauek kantatu zizkion jaialdia bideratu zuen Kontxita *amonari*:

Horra 20 lore hori/neskato batek opari/Marije Gurrutxagari/gure amona xaharrari/eskerrik asko antolatzaile/eta hemengo danari/historia eder hori/ehun

urtez ari ta ari/ospatu dezuten hori.//Bizipoz eta herio/apustu ta desafio/arrauna dala merio/ historiari begiratzeak/ez al du asko balio?/maitasun ta amorio/ arraunari eman dio/horra ehun urtez Orio.

Hogei urte pasatu dira egun hartatik. Tarte horretan han kantatu zutenetako lauk utzi gaituzte. Haietako bi oso gazte joan ziren: Julen Saizar eta Oihana Alkorta. Haien heriotzak hutsune handia laga zigun denoi. Manuel Lasarte eta Joxe Mari Urkizu ere joan ziren, handik urte gutxira. Lau haientzat, eta jaialdian Salatxo Abesbatzan kantatu eta gaur egun gure artean ez dauden Manuel Urkizu, Jaione Iribar, Pilare Aizpurua, Migel Mari Olasagasti eta Jose Mari Gurrutxagarentzat da, bereziki, kantaldi haren oroitzapen hau. ■



Iritsi da eguna

Karkarako lagunek artikulu hau idazteko gonbidapena egin zidaten, eta ezin nuen aukera pasatzen utzi. Lehenengo, neure burua aurkezteko, eta bigarren, gaur egungo kultur egoeraz hausnarketa txiki bat egiteko. Batez ere, herri kulturaz.

Herri txiki batetik beste herri txiki batera egin dut salto, barrualdetik kostaldera: Urnietatik Oriora, hain zuzen. Baina herri txikiek badute antzeko berezitasun bat, beren txikitasunean handi egiten dituen: herritarrak. Kalera irten eta bizilaguna topatzean, agurtu egiten duzu, buruko keinu batekin bada ere, bat edo besteren anai-arreba, ama-aita, lehengusua edo kuadrillako laguna baita. Pertsonen arteko harreman

horrek egiten du herri txiki bat harribitxi edo, hobeto esanda, *herribitxi*. Harreman horietatik sortzen dira kultur eta herri mugimenduak, herritarren lanak eta ahaleginak sendotzen dituztenak. Horretan ere, Orio ez da atzean geratu, bistan da.


Eskerrak eman nahi dizkiet oriotarrei egin didaten harrera

**BENETAKO AHALEGINA
EGIN DA KULTUR
ESKAINZA ZABAL ETA
KALITATEZKOA
ESKAINTEKO ETA,
ALDI BEREAN,
SEGURUA**

onagatik, eta baita herriko eragileei eta udaleko langileei ere. Suertatu zaidan papera behar bezala betetzen saiatuko naizela besterik ezin dut esan.

Ez gatoz, ordea, desiratutako egoera batetik. Azken urte eta erdi honetan pandemiak gorriak ikusarazi dizkigu. Larrialdi honek proban jarri gaitu, pertsona gisa eta, batez ere, gizarte gisa. Gogoratu besterik ez da herrian isilik, ia hotsik atera gabe, joan zaizkigun lagun, familiako kide eta senitartekoekin. Pentsatu hutsarekin, benetan, bihotza uzkuratzen zait. Besarkada handi bat egoera horretan egon diren guztiei. Baita gaixo eta ospitaleratuta egon direnei ere, gaizki pasatu dutelako. Bestalde, ostalari eta merkatariek ere momentu latzak pasa dituzte, beren

HAUXE BAI JENEROA!



negozioak kinka larrian ikusteraino.

Egun ilun horien amaiera nabaritzen hasi gara, pixkanaka. Testu hau idazten ari naizen momentuan, ordea, azken datuek nabarmen gora egin dute, eta osasun agintariek neurri berriak ezarriko dituzte. Horrek gogorarazten digu zomorroa oraindik zelatan dagoela eta, beraz, ezin ditugula besoak jaitsi. Geratzen zaigun azken txanpa honetan ezin dugu jardun palada motzean; erritmoari eutsi behar diogu, azkenean bandera lortzeko. Horregatik, udaletik orain arte egindako lana ere goraipatu nahiko nuke, benetako ahalegina egin baita kultur eskaintza zabal eta kalitatezkoa eskaintzeko eta, aldi berean, segurua.

Baina, orain, iritsi da jai giroaz eta festaz gozatzeko eguna! Lagunekin edota senitartekoekin egon eta, azken finean, ondo pasatzeko eguna. Sanikolasak bertan ditugu eta herriko elkarrekin, eragileek eta udalak antolatutako jai ekitaldien artean badugu non aukeratu. Agian ez dira betiko jaiak izango, baina ilusioz eta gogoz egindako jai programazioa da, dudarik gabe. Goazen, bada, festan murgiltzera! Betiere, ahaztu gabe nondik gatozen. Festa hauetan herritarrari arduraz jokatzeko eskatu nahi nioke, tabernari eta ostalariei arretaz, eta udalari zuhurtasunez, asko baitago jokoan. Gora sanikolasak eta aupa Orio!

*Oharra: 2021eko azaroaren 15ean idatzitako artikulua da. ■■■


NIRE HONETAN



RIKARDO UZKUDUN

Funtzionario

Nire inguruan gai errekurrentea da funtzionario izatearena; deialdi publikoa dela, postuak, ordezkapenak... Tarteka, baita telebista eta egunkarietan ere. Funtzionario izateko amorratzen gaude denak! Nik, ordea, beste angelu batetik heldu nahi nioke gaiari: zer da funtzionario izatea? Garbi dago konotazio eskasa duela hitzak: *alperra*, *eskakeatzailea*, *pasiboa*, *amargatua*... hitzekin lotzen dugu normalean. Egia da badagola jendea lanik handiena hartzen duena nola eskakeatu pentsatzen, ordu erdi aurrezten, erantzukizunak saihesten, eskatzen, kexatzen, ihes egiten. Nago horrelako belar txarra bastante ugaritu dela bazterretan, eta ez bakarrik administrazioan. Akaso, ez al dago funtzionarioik sektore pribatuan? Kooperatibetan? Bulegoetan? Trenak egiten? Hitzari beste konotazio bat eman beharko genioke. *Funtzionario* funtzionatzen duen langilea behar luke izan, bere lana ongi egiten duena. Eta funtzionatzen ez duten gauzak, konpondu edo, bestela, zakarrontzira! Herbestean bizi den lagun euskaldun batek behin horrela esan zidan bisitan joan nintzaionean: "Badakizu gehien-gehien zer sentitzen dudan faltan hemen? Lanak ongi egitea gustatzen zaion jendea". ■■■





Taldeak hazten

Orioko Mendi Lasterketa prestatzeko deialdia egin, eta astero elkartzen den berrogei pertsonako emakumezko korrikalari taldea osatu. Nahiz eta hasieran harridura eragin zuen, jada normaldu da Orioko Atletismo Taldeko emakumeak herrian entrenatzen ikustea. Eta ez hori bakarrik; inguruko lasterketa garrantzitsuetan lehiatzen ere aritu dira. Oraindik Behobia-Donostia lasterketaren ajea guztiz pasa gabe, Itziar Olasagasti arraunlari ohiaren eta Aurora Azkue eta Leire Elorza ama-alaben testigantzak bildu ditu KARKARAK taldearen nondik norakoak gertuagotik ezagutzeko.

Testua: **Aritz Pardina**. Argazkia: **Arnaitz Rubio Aprea**.

Aurtengo martxoan hasi dute bidea Orioko Atletismo Taldeko emakumezko korrikalariak. Ordurako gizonetzkoen taldea lanean hasia zen, eta gaztetxoekin egindako bideak ere erakutsia zuen anitzak direla kirol horrek ematen dituen aukerak. Emakumeen taldea sortzeko unean, "atletismo taldean bazeuden Orioko Mendi Lasterketa prestatzen ari ziren hiruzpalau emakume, eta haiek bultzatu zuten deialdi zabala egitea. Gizonetzkoak jada bazebiltzan dinamika horrekin. Hortaz, emakumeak, zergatik ez?", azaldu dute taldeko



kide Itziar Olasagasti arraunlari ohiak eta Aurora Azkue eta Leire Elorza ama-alabek.

Whatsapp bidez egindako deialdi haren arrakasta baino, haren iraunkortasuna iruditu zaie nabarmentzekoa taldekideei: "Izena emateko gonbita asko zabaldu zen. Hilabeteko proba zenez, inolako konpromisorik gabe har zitekeen parte, eta horrek jendea mugiarazi zuen. Proba amaitu ondoren, norberak aukera zezakeen jarraitu edo ez. Martxoan ia berrogeita hamar izatera iritsi ginen, eta gaur egun berrogei pertsona inguru gara". Beraz, taldea oraindik berria bada ere, harrera oso ona izan duela azpimarratu dute, besteak beste, bertako eta inguruko herritarrei eskaintzen dien aukeragatik.

Izan ere, hasierako filosofia irekiari gogotsu eutsi diote. Partaideen hitzetan, "izen ematea ez da izan adin tarte, esperientzia edota bestelako irizpide zehatzen araberakoa". Aitzitik, lehen unetik izan dute garbi proiektu horren erdigunean aniztasuna zegoela: "Helburu desberdinak zeudela ikusi genuen, eta oraindik ere, norberak bereak ditu. Adin eta kirol aniztetako jendea bertaratu ginen taldera, denetarik dago: batzuek lehiatzea dute buruan, inguruko lasterketetan markak jarri eta urtez urte horiek hobetzea. Beste batzuek, berriz, nahikoa dute San Silbestre lasterketa egitearekin edota sasoi fisikoa mantentzearekin. Helburu xumeagoak dituztenak ere badaude, esaterako, besterik gabe, diziplina hori ezagutu edo landu nahi duten pertsonak".

Laguntasuna oinarrian, taldekideek ez dute zalantzarik: askotan aurkakoa uste badugu ere, maila ezberdinak egoteak ez du haien jarduna zertan kaltetu. Taldean aritzea guztientzat onuragarria dela ere baieztatu dute, askotan lehiatzeko gaitasun handiena duenari ere ondo etor baitakioke maila baxuagoko kirolariak alboan izatea.

Taldearen indarra

Elkarrekin aritzearen onuren artean, elkarriketatuek "konstantzia" aipatu dute gehien. Azken batean, "bakoitzak bere eskarmentuaren araberako ekarpenak egiteak" kohesioa hobetzen laguntzen die, eta hori da haien helburu nagusia: ingurukoak aktibatzea. Olasagastik, esaterako, hala baieztatu du: "Ondokoa baxuxeago egonda ere, gogo handiagoz entrenatzen dut taldekide batekin, bakarrik eta denak emanda baino. Askotan, bakarrik etxean geratuko litzatekeenak taldeari esker entrenatzen du, eta hori oroz gain baloratzekoa da".

Kirol jardueraren jarraikortasun hori giro onak ere bultzatzen du, eta hala azpimarratu dute ama-alabek: "Hain zuzen ere, giro ona dagoelako entrenatzen du jendeak gustura. Bakoitza era batekoa da eta, nolabait, horrek lagunarteko sentazioa sortzen du. Guztiok helburu berak bagenitu, berriz, batzuk atzean geldituko lirateke erremediorik gabe, eta horrek gure kohesioa apurtuko luke". Haien ustez, entrenamenduak gustagarria ere izan behar du, nahiz eta ezin den saihestu kirolak berez dakarren esfortzua; eta, hori lortzeko, ez dago orain arte garatu duten gogokidetasuna baino ezer hoberik.

Dena dela, lehiaketetan elkarren babesa are oinarritzkoagoa dela uste dute, horietan elkarren arteko ezberdintasunak gehiago azaleratzen direlako, dela kirioengatik, esperientzia faltagatik edota bestelako faktoreengatik: "Taldean joatea oso motibagarria da, baina, horrez gain, baita ikasketa iturri paregabea ere, lasterketetan gehienbat. Horregatik, behintzat irteeran (oso garrantzitsua baita puntu hori) eta, noski, ahal den bezainbeste, inor bakarrik ez uzten saiatzen gara, nahiz eta batzuetan hori ekidinezina den. Izan ere, batzuentzat enegarren lasterketa dena besteentzat lehenengoa izan daiteke. Horrenbestez, esperientzia berri horiek taldean kudeatzea oso garrantzitsua da". Giro ona, motibazioa eta ikasketa dituzte Atletismo Taldeko emakumeek kirolaren lagungarri.

Emakumezkoen kirola, bistara

Hasieratik emakumezko asko elkartu da taldean, eta kalera irteten hasi zirenean, zeresana eman zuten herrian: "Hasi ginenean, talde handia ginenez, jendeak aho zabalik begiratzen zigun. Orain jendea ohitu da, baina hasieran inpaktu handia sortu zuen, hala izan behar ez lukeen arren. Azken batean, korrika egiten duten emakumeak gara, besterik ez", esan dute hirurek. Dena den, era horretara taldean bistaratzeak kirola egitetik haragoko esanahia dauka, emakumezkoek kirola egitea geroz eta normalduagoa badago ere, gizarteak ikasteko asko duela ere baieztatu duelako taldeak.

Olasagasti eta Elorza arraun eta igeriketa mundutik datoz, baina Azkuek ez zuen gatzetatik kirola egiteko aukerarik izan: "14 urterekin-edo, punta-puntakoa izan ezean, neskek ezin genuen kirolean jarraitu. Ez dakit zergatik, baina atek ixten zitzaizkigun". Kontu hori ez da zaharra, alderantziz; eta horrek azal dezake korrikalari taldeak herrian sortu zuen harridura: "Jendea txutxu-mutxuka ere aritzen zen gu ikustean". Arlo horretan ere, genero bereizketa sakonekoa da, baina elkarriketatuek badute hori aldatuko denaren esperantza. Batzuek eraldaketa horiek ezagutu dituzte, nahiz eta oraindik ere gizona ezagutzea alde handia dagoen. Olasagastik, esaterako, kirola egiteko ez zuen zailtasun berezirik sumatu. Bera baino zaharragoak,

aldiz, bai: "Seniorretara iristean trainerurik ez zegoen, ezin zitekeen jauzi hori eman. Suertez, ni seniorretara iristean sortu zen lehenengoz nesken trainerua, eta jarraitu egin nuen". Elorzak, berriz, kontatu du igeriketan "mutilek eta neskek berdintasunean eta giro onean" entrenatzen zutela. "Hori bai, lehiaketetan ezberdintasuna nabariagoa izaten da. Trabesietan, esaterako, ikusten badute emakumezkoa, gaztea eta txikia zarela, zure aurka egiten dute; berdin die ondokoa kolpatzea ere. Irteeretan denetarik bizi izan dut", gehitu du.

Alderdi ona ere nabarmendu nahi izan dute: "Inbidia ere sortzen dugu. Aurrekoan, esaterako, andrazko batek goizegi jaio zela esan zigun, gazteagoa balitz gustura irtengo zukeela gurekin kirola egitera". Hala, umorez egiten diote aurre andrazkoek kirol kontuetan pairatu behar dituzten ezbeharrei. Izan ere, taldeko giroa eta gizarteari egiten dioten onura bultzada ederra dira aurrerantzean kilometroak egiten jarraitzeko.

Etorkizun oparoa

Pasa den azaroaren 14an jokatu da Behobia-Donostia lasterketa, eta emakumezkoak parte hartzaileen %25,5 izan direla jakinarazi dute antolatzaileek, eta 2025 urterako helburua dela emakumeak %50 izatea. Bada, aurten Oriotik joan diren kirolariak parekotasun hori lortu ez ezik, gainditu ere egin dute: "Harro egotekoa da, zalantzarik gabe", esan dute. Herrian nola, hala hasi dira lasterketetan ere presentzia irabazten eta, bide horretatik, euren zaletasuna hedatzen.

Taldea Oriokoa bada ere, Donostiako jendea ere badago taldean eta, horrez gain, honakoa gaineratu dute: "Jendea jada hasi da lasterketetan kamiseta arrosa Orioko Atletismo Taldearekin erlazionatzen. Behobia-Donostian izan genuen parte hartze handia ere nabarmentzeko da, kirolarentzat ez ezik gizarteari dagokionez ere onuragarria baita". Sare sozialek ere izango zuten zeresana hedapen horretan, elkarrizketatuek diotenez, inguruko herrietara haien oihartzuna zabaldu izana ezin baitute bestela azaldu: "Harrigarria da Orio kanpotik ere jendea etortzen ari zaigula".

Gauzak horrela, etorkizunarekiko baikorrak dira, gehienbat jada Donostiako Salto 15K eta Behobia-Donostia bezalako probetan parte hartu dutenen gogoia ikusita: "Lehen aldiz lehiatzen duenari grina pizten zaio. Nahiz eta zenbaitek, izan lanagatik, lesioengatik edo bestelako edozein arrazoiengatik, entrenatzeari utziko dion, beti etorriko zaigu jende berria. Gainera, gure lan egiteko modua erakargarria da, eta entrenatzaile oso onak ditugu. Taldearen baliabideak onak dira".

Dena dela, lehiakortasunaren bultzadaz gain, lehen nabarmendutako giro ona eta taldekideen arteko babesa gogoraraztea komenigarria da, haietan baitatza elkarrizketatuen estez entrenamenduen egiazko balioak: "Korrika egiteak burua argitzeko balio du. Taldean egunerokotasun grisetik ateratzen zaituen giroan zaude, ondo pasa eta kirolaz gozatzea beste kezkarik gabe. Etxera indarberrituta iristen zara berriz ere lanean hasteko". Beraz, badirudi Orioko Atletismo Taldeko emakumezko kirolariak luzaroan ikusiko direla herriko pasealekuetan kilometroak egiten. Ezbairik gabe, hasieratik berezkoa duten umiltasunak lagunduta, euren itzala kirolaz gaindiko beste hainbat alorretara luzatzen jarraituko dute. ■■■

**"GIRO ONA DAGOELAKO
ENTRENATZEN DU
JENDEAK GUSTURA"**

**"GURE LAN EGITEKO
MODUA
ERAKARGARRIA DA,
ENTRENATZAILE OSO
ONAK DITUGU"**



Gipuzkoako
Foru Aldundia
Diputación Foral
de Gipuzkoa




ETORKIZUNA
ORAIN
Es futuro

TicketBAI

Etorkizunerako prestatzen.



2022an, **TicketBAI** Gipuzkoara iritsiko da. Etorkizunerako prestatzen gaituen online fakturazio-sistema berria.

Anima zaitez zure enpresan edo negozioan borondatzeko epean ezartzera eta ezagutu kenkariak eta abantailak.

Informa zaitez

 gipuzkoa.eus/ticketbai

 Aurrez aurreko informazioa (hitzordua)

 943 113 000

 ticketbaikontsultak@gipuzkoa.eus



TicketBAI
GIPUZKOAN | EN GIPUZKOA

gipuzkoa.eus/ticketbai




Sansinenea industrialdea, B2 · Zestoa

943-44 30 01

gipuzkoa@renovalan.com

www.renovalan.com



• Birgaitze energetikoak • Irigarritasuna - Igogailuak • ITE konponketak
• Arriskuak kentzea • Urbanizazioak • Estalkiak • Diru laguntzen kudeaketa

Ortzaikan eta Urdanetan, gozatu dute sanmartinetan

ARGAZKIAK: KARKARA

TESTUA: AITZIBER ARZALLUS

Pandemia deklaratu zutenetik 21 hilabete luze betetzear zirenean, a zer poza KARKARAren erredakziora behar den bezalako festa egitarau bat iritsi zitzaigunean. Pandemia osteko aurrena, pandemia aurrekoa zela zirudiena. Eta baten faltan, jaso genuen bigarrena. Ortzaikan eta Urdanetan, sanmartinak ospatzen baitituzte bietan. Batean zein bestean, bost egun bete-beteak. Ume jolas, herri kirol, bazkari eta erromeri, astelehen goizean izango zuten nahikoa komeri. Baina gozatutakoa eurentzako, hori inork ez die kenduko, eta senti daitezela zorteko, datozen festak egingo diren ikusteko dagoelako. ■■■





Portu
Ertegia - Jatetxea

Kazolita, baserriko oilaskoa,
parrillako errekiak, eguneko menua...

Santio Erreka auzoa, z/g - AIA
943-89 44 34



Sagasti
LEIHOAK

Tel.: 943-13 00 77 - Fax 943-53 71 50
sagasti@sagastileihoak.com
Eusko Gudari, 7
20810 Orio

Kalitazteko materialak
PVC eta aluminioa • Isolamendu termiko eta akustikoa
Salmenta osteko zerbitzua

Roberto Sagasti



BODEGON
Sarasua

info@bodegonsarasua.es | www.bodegonsarasua.com | Erreserbak: 943-83 00 05



Seguros
Bilbao

Santi Barranco
Orioko Ordezkarria


Endaia Enparantza, 1 • ORIO • sbarranco@segurosbilbao.com
943-11 16 00 • 688 71 48 69



ORANGA
burdindegia

Opari, menaje eta erremintak

Eusko Gudari, 5 • ORIO • 943-83 12 36



Sinergia
fisioterapia eta ikerkuntza

Ibai ondo, 1 behea • ORIO
943-13 05 77 • 685 71 85 95
sinergiafisioterapia.com

- **Lesioak:** bihurdurak, tendinitisiak, zaintiratuak, kontrakturak, hanka handituak, artrosia, kirurgia osteko birgaitzea, bizkar hezurreko arazoak, arnas gaixotasunak haur eta helduetan, lesio neurologikoak, haurdunaldirako tratamendu bereziak, erditze ondorengo errekupeazioa.
- **Tratamenduak:** terapia manuala, osteopatia, masajeak, drainatze linfatikoa, arnas fisioterapia, kinesiopina, pilates, abdominaletako gimnasia hipopresiboa (GAH), REDCORD.



Orioko
Herri
Ikastola
ORIO GARA

Abeslari kalea, 8
943-83 47 04
Fax-a: 943-13 09 38
orio@ikastola.eus
www.oriokoikastola.eus



Oreaka
fisioterapia

Eusko Gudari, 54 • 943-13 35 37

Ekografia muskulo-eskeletikoa
Eskuzko terapia • Talka-uhinak
Masaje terapeutikoa • Osteopatia



SU
KIA
TABERNA • JATETXEA

Eguneko menua
Asteburuetakoa
Oilaskoak eramateko
Ogitartekoak
Plater konbinatuak
Terraza ederra
(alboan umeentzako parkea)

Abaromendi 38, behea 1
ORIO • 943-89 21 29



Zaragueta IPI
HERRI ESKOLA 2-16

943-89 92 43
012137aa@hezkuntza.net

Buruko mina edo zefalea



TESTUA: IZARO ISIDRO

Lehenengo aldiz, neure gain hartu dut KARKARAn osasunari buruz hitz egiteko erantzukizuna. Sei urte dira Fisioterapia gradua amaitu nuela, baina beti jarraitu dut nire jakinduria berritzen. Pazienteekiko hurbileko eta zuzeneko harremana da fisioterapiak daukan gauzarik onena, eta gizakia ardatz duen lanbide honetan oso lotura bereziak sortzen dira. Oraingo honetan sakonduko dudan gaiak badu bere zergatia eta garrantzia. Pazientearekiko lehenengo hartu-emanen, hau da, anamnesian, galdera asko egiten ditut, baina bada behin ere faltako ez den galdera bat: izaten al duzu buruko minik? Gehienetan, tamalez, erantzuna baiezkoa izaten da; hortaz, hurrengo lerroetan gai horretan sakontzea erabaki dut, interesgarria izango zaizuelakoan.

Buruko mina burezurrean agertzen den mina da, eta arrazoi askoren ondorio izan daiteke. Osasun publikoko arazoa da mundu guztian, lanerako adin produktiboenean dauden herritarrei ere eragiten dielako. Buruko Minaren Nazioarteko Elkarteak (International Headache Society) aldian-aldian eguneratzen duen sailkapen bat argitaratzen du, eta horren arabera, buruko minak hainbat

modutara sailka daitezke; adibidez, intentsitatearen eta sintomatologiaren arabera. Bi talde nagusitan banatu ohi dira. Buruko min primarioak: migraina, tentsioak eragindako zefaleak, nerbio sisteman eragiten dutenak... Eta buruko min sekundarioak, alegia, beste gaixotasun batek eragindakoak: buruko edo lepoko traumatismoren bati egotzitako buruko minak, baskularrak, infektzioak, nahasmendu psikiatrikoen ondorio direnak...

Herritarren %96k noizbait izan dugu buruko mina, eta emakumei gehiago eragiten die gizoni baino. Buruko min motak ere eragina du prebalentzian. Esaterako, tentsioak eragindako buruko minak herritarren %40k izaten dituzte gutxi gorabehera; migrainak, berriz, % 10ek.

Gaur egun, tratamendu tradizionalaren parte dira botikak; denok ezagutzen ditugun analgesikoak, antiinflamatorioak, gihar lasaigarriak, triptano eta narkotikoak... Baina, zoritxarrez, ez dute minaren jatorria bilatzen, saminaren lasaitasuna baizik. Beti diot gure gorputza oso azkarra dela eta askotan

**TRATAMENDU EGOKIA
EGINDA, BEREHALA
ANTZEMAN DAITEKE
HOBEKUNTZA**

buruko mina alarma sistema gisa erabiltzen duela. Adi egon behar dugu gure gorputzak bidaltzen dizkigun seinale guztiei, horien bidez zerbaitetan arreta jartzeko eskatzen baitigu.

Nire esperientzia klinikoan oinarrituta ziurtatu dezaket, tratamendu egokia egiten denean, paziente batzuek berehalako eta aparteko hobekuntza nabaritzen dutela. Fisioterapeutok hainbat teknika eta era ditugu tentsioaren ondoriozko buruko minari aurre egiteko. Adibidez; zerbikalaren mobilizazioa eta manipulazioa, lepoko trakzioa, masaje terapia, erlaxazioa, luzaketak, higiene posturala, beroa, puntzio lehorra, teknika miofaszialak, elektroterapia, arnasketa sakonak, puntako teknologia darabilten hainbat makina... Hala ere, denetan garrantzitsuen eta ezinbestekoa, pazienteari entzuten jakitea da, eta hura mimos tratatzea.

Bukatzeke, ez diet garrantziarik kendu nahi kanpoko faktoreei, eta elikadurak merezi du aipamen berezi bat egitea ere. Asko dira saihestu beharreko elikagaiak; batez ere, prozesatuak, kafeinadunak, azukredunak, alkoholdunak... Baina guztietan etsairik handiena estresa da, gai delako gure sistema guztia hankaz gora jartzeko. Beraz, hartu bizitza lasaitasunez, eta bizi oraina alaitasunez.

IZARRA ELEKTROGAILUAK

INOR EZ DADILA GABONETAKO OPARIRIK GABE GERATU,
ETOR ZATTEZTE GURE DENDARA

URTE BERRI ON!

OLED

Eusko Gudari, 44 · 20810 Orio (Gipuzkoa)
izarraelectrodomesticos@gmail.com

ETIEN 21E

Jarri zure
iragarkia

KARKARAn

943-83 15 27

Hemengo haragia.
Etxeo produktuak: tripaki, odolki,
txekorra, txorizo, kroketak...

**HARATEGIA
PATXI
OLIDEN
URDATEGIA**

Eusko Gudari, 25 · 943-83 00 10

**ZINKU
ERAIKUNTZAK**

- Igeltserotza orokorra
- Etxebizitzaren erreformak
- Teilatuak
- Sukalde, komunak, etb.
- Eraisketak

*deitu eta eskatu aurrekontua
konpromisorik gabe*

Ander Zinkunegi
667 74 02 79

neerü

YOGA ETA JARRERA METODOAK
OREKA MUGIMENDUAN

Ibaiondo 5 behe, Orio · 686 02 05 17

Ttipi

Eusko Gudari, 15
ORIO

ttapa

943-25 96 95

ARDORA

Arraindegia

Eusko Gudari, 4

☎ 943-09 28 27 ☎ 623 47 57 52
ardoraaraindegia@yahoo.com

ORIO

BODEGAS Gailur

01307 BANCOS de EBRO
Tel/Fax 943 60 91 58
www.bodegagailur.com

ZUDUGARAI

Gelariako Txakolina
BONORRIKATU DA GUREA

Tel: 943-83 03 86 · Fax: 943-83 59 52
txakolizudugarai@euskalnet.net www.txakolizudugarai.com

Zarautz

Hileta Zerbitzuak

1962. urtetik zure zerbitzura

24 ordu zure zerbitzura
Beilatokia · Lekualdatzeak ·
Eginbide guztien tramitazioa

Araba kalea 35 · ZARAUTZ
943-89 49 37
info@zarautzhiletazerbitzuak.eus

hai
EUSKAL
HILETA
ZERBITZUA

Euskarari dagokionez, nolako Orio nahi dugu hamar urte barru? (IV)



DANBOLIN MUSIKA ESKOLA

Euskararen arloan, Orio orain bezala irudikatzen dugu hamar urte barru: herri euskaldun bat izango da.

Herrian lan handia egiten da euskararen alde, bai udalean, bai norbanakoek eta eragileek. Nahikoa den edo ez, denborak esango du, baina bide onean goazela iruditzen zaigu.

Musika eskolan euskaraz egiten dugu dena. Gure jarrera zeharo euskalduna da. Euskal kulturaren alde lan egitea da gure lanaren helburuetako bat, eta bide horretan, hizkuntzak garrantzia ikaragarria du.

Gero eta biztanle gehiago ditu Oriok, eta atzerritar asko etorri da. Hori da erronka handietako bat. Hemengo jendeak euskarari eusten dio orokorrean, eta hori garrantzitsua da, euskaraz ez dakitenengan ikasteko gogoa pizteko. Musika eskolan, oraingoz behintzat, banaka ailegatzen dira atzerritarrak, eta ikaskidea denak euskaraz entzuten dituztenez, haiek murgiltzen dira euskaldun giroan.

Urte batzuk barru, litekeena da euskaraz ez dakitenen kopuruak gora egitea musika eskolan ere, dagoeneko kalean eta eskoletan egin duen bezala, eta orduan izango dugu erronka handiagoa musika eskolan. ■■



TXURRUMUSKI

Txurumuskik duela 23 urte hartu zuen euskaraz eta euskaratik jarduteko konpromisoa, eta hala jarraitzea da gure nahia, gutxienez, beste hamar urtez. Gurea aisialdiaren arloa den aldetik, gustatuko litzaiguke haurrei euskarak duen garrantzia dibertsiotik eta zeharkako modu batean transmititzen jarraitzea, eredu errealak eskainita, euskaraz ere ondo pasa daitekeela erakutsita.

Izan ere, badirudi haurrek denbora librean ondo pasatzeko gaztelaniazko jarraibideak baino ezin ditzaketela topa komunikabideetan; dela telebistan, dela bideojokoetan. Horregatik, gorputzetik eta emozioetatik igarotzen den transmisioan lanean jarraitu nahi dugu, talde moduan indargune ditugun ezaugarriekin tinko irauteko.

Bestalde, gustatuko litzaiguke talde batean euskaraz ez dakien eta gaztelaniaz hitz egiten duen ume batengatik gainontzekoek gaztelaniaz egiteko joera murriztea, sarri hor baitago arazoaren sorrera: gure praktikotasun zentzugabea.

Horrenbestez, talde euskalduna eta hizkuntzarekiko kontzientziaduna garen heinean, euskararen alde ludikoa gure jardunean nabarmen geratzea gustatuko litzaiguke eta, ondorioz, Oriori halako xarma ematen dion gure hizkuntza hau umeentzako eguneroko jostailu bilakatzea. ■■



Hamaika ikustekoak

Aurki itzazu bi irudion artean dauden aldeak. Hamaika dira guztira.



Bete itzazu hutsuneak argindarraren domino zati honek zentzua izan dezan.


DOMINOAN

Mezua

Marrazkitxook ezkututzen duten esaera ezin hobeto dihoakio mutiko honi. Jarri marrazki bakoitzaren azpian bere hizkia eta osatu esaera. Erabili irudi-alfabetoa.



Bide batez, irudia margotu.



ALFABETOA



Sudokua

Egutegiko azken hila abendua da. Lotazila edo neguila ere esaten zaio. Bete itzazu hutsuneak abendua hitza osatzen duten hizkiez (A, B, E, N, D eta U). Gogoratu hizki bakoitzak behin agertu behar duela lerro, zutabe eta area bakoitzeko.

	E	B			N
	U				
		D		A	
	A		U		
				B	
A			E	D	


Itzala Ez dakigu Aita Noelen laguntzaileetako bat den, ala Maripurtzil ote den, ipotxez mozorrotuta. Nolanahi dela ere, Olentzerori opari batzuk ostuta alde egin du. Ikusten ari zaren itzal horietatik bakarra da zuzena. Zein da?

Bide batez, margotu ezazu zure gustura.



Engainariak

Zazpi txatal hauetatik hiru ondoko irudi nagusitik hartuta daude eta beste laurak, berriez, engainariak dira. Bereiz itzazu.



Soluzioak ikusteko: www.plazanbazan.eus/

IRAGARKI SAILKATUAK

ALOKAIRUA

Autokarabana eta karabanentzat aparkalekuak alokagai, garaje estalia eta beharrezko ekipamendua-ekin. Aia-Orio. Telefonoa: 620 85 69 53 (goizez).

Alokatzeko garaje bila Goiko Kalen. Telefonoa: 690 27 28 42.

Garaje bat alokatzen da Anibarko Portuan. Telefonoa: 649 22 87 87.

Garaje itxia alokagai Orion, Baxoalde kalean. Informazio gehiagorako, deitu 615 15 03 14 zenbakira.

LAN ESKAINTZA

Urdairan txotx saioan lan egiteko zerbitzariak behar ditugu. Urtarrilaren 15tik aurrera.Harremanetan jaritzeko, telefonoa 619 40 36 91 edo urdaira@urdaira.com helbidera idatzi.

LAN BILA

Emakume gazte bat lan bila. Pertsona helduak eta haurrak zaintzeko prest eta baita garbiketa lanetarako ere. Berehala lanean hasteko moduan. Telefonoa: 642 69 60 38.

Lan bila nabil, etxe garbiketak egiteko prest. Telefonoa: 641 44 60 70.

Etxeko lanak egiteko edo zaintzan lan egiteko prest nago. Telefonoa: 631 82 44 52.

Lan bila dabilen emakumea naiz. Bikaina naiz haurrak zaintzen, eta garrantzi handia ematen diot garbitasunari eta txukuntasunari. Arduratsua naiz, eta arreta handia jartzen dut nire lanean. Berehala lanean hasteko prest nago. Telefonoa: 602 08 98 86.

Iragarkietarako bokoa. Iragarri nahi duzun hori telefonoz (943-83 15 27) zein e-postaz bidali dezakezu: karkara@karkara.com.
Merke asko, gainera, doako zerbitzua baita gurea.

Lan bila nabilen neska bat naiz. Haurrak edo adineko pertsonak zaintzeko edo etxeko lanak egiteko prest nago. Barneko zein kanpoko langile bezala, edo orduka. Esperientzia eta erreferentziak ditut. Samanta. Telefonoa: 643 85 78 54.

Emakumea adineko pertsonak zaintzeko edo orduka lan egiteko prest. Harremanetarako deitu honako telefono zenbakira: 697 65 05 19.

Ingeleseko klase partikularrak emateko prest nago. 20 urteko neska oriotarra naiz, ordutegi malgua daukat. Telefonoa: 690 06 63 11.

Emakume gaztea etxeko lanak, garbiketak edo tabernako lanak egiteko eskaintzen da. Egun osoa edo orduka. Telefonoa: 627 09 07 06.

Neska gaztea haurrak eta adinekoak zaintzeko prest, irailetik aurrera. Esperientzia dut zeregin horretan eta baita prestutasun osoa ere. Jarri harremanetan honako telefono zenbakian: 695 37 82 60. Estrella Reyes.

SALGAI

Olaciregi txipironera salgai. Suzuki DFIS motorra. Abendura arte asegurua ordaindua du. 3.500 euro. Telefonoa: 657 77 45 11.

Zerrama, apotea eta txerrikumeak salgai Usurbileko baserri batean. Interesik izanez gero deitu 607 66 86 03 zenbakira. Joxe Krux.

BESTELAKOAK

Land Rover Defenderra erosi nahiko nuke, berdin du zer egoeratan dagoen: iTVa pasa gabe, kolpeekin, aberiatuta... Telefonoa: 623 17 95 37.

Orion bizi den familia bat autokontsumorako baratze ekologiko bat egiteko lurzoru baten bila dabil alokairuan Orion edo inguruan. Telefonoa: 657 71 96 14.

ITSASOA

Eguna	Itsasgora	Itsasbehera	Ilgaria
1	01:35 eta 13:53	07:33 eta 20:05	●
2	02:22 eta 14:41	08:22 eta 20:51	●
3	03:06 eta 15:29	09:09 eta 21:36	●
4	03:51 eta 16:17	09:57 eta 22:21	●
5	04:37 eta 17:06	10:46 eta 23:08	●
6	05:250 eta 17:56	11:36 eta 23:56	●
7	06:15 eta 18:49	12:28	●
8	07:08 eta 19:45	00:47 eta 13:22	●
9	08:06 eta 20:46	01:41 eta 14:21	●
10	09:10 eta 21:55	02:41 eta 15:24	●
11	10:18 eta 23:08	03:48 eta 16:33	●
12	11:28	04:59 eta 17:41	●
13	00:16 eta 12:33	06:08 eta 18:43	●
14	01:13 eta 13:29	07:07 eta 19:35	●
15	02:00 eta 14:16	07:58 eta 20:19	●
16	02:41 eta 14:57	08:42 eta 20:58	●
17	03:17 eta 15:34	09:23 eta 21:34	●
18	03:50 eta 16:09	10:00 eta 22:08	●
19	04:22 eta 16:42	10:35 eta 22:41	●
20	04:54 eta 17:16	11:10 eta 23:14	●
21	05:27 eta 17:50	11:44 eta 23:47	●
22	06:01 eta 18:26	12:19	●
23	06:38 eta 19:05	00:23 eta 12:57	●
24	07:19 eta 19:49	01:02 eta 13:38	●
25	08:05 eta 20:40	01:46 eta 14:25	●
26	08:58 eta 21:40	02:37 eta 15:20	●
27	10:00 eta 22:47	03:37 eta 16:23	●
28	11:08 eta 23:55	04:44 eta 17:29	●
29	12:18	05:52 eta 18:34	●
30	00:57 eta 13:23	06:57 eta 19:34	●
31	01:55 eta 14:22	07:58 eta 20:29	●

FARMAZIAK-ABENDUA

ZARAUTZ

16 .	ETXEBERRIA: Gipuzkoa kalea, 17 / 943-83 23 98
13 eta 22.	ESPARZA: Santuturri plaza, 5-6 / 943-50 47 83
10, 17, 23, 28, 29 eta 31.	GALLO: Zigorria kalea, 17 / 943-13 40 19
1, 9 eta 15.	GARMINDE: Gipuzkoa kalea, 68 / 943-12 40 19
11 eta 12.	IRIARTE: Zinkunegi, Pilarxo Enea / 943-13 29 70
3, 7, 21, 24, 25, 26 eta 27.	ITURRIA: Kale Nagusia, 12 / 943-83 29 70
2, 14 eta 20.	LARRAÑAGA: S. Frantzisko, 16 / 943-13 38 14
18, 19 eta 30.	REDONDO: Urdaneta kalea, 8 / 943-13 31 83
4, 5, 6 eta 8.	ZULAIKA: Bizkaia kalea, 41 / 943-13 39 94

AGENDA

ORIO

ABENDUAK 5-8

San Nikolas jaiak 2021.

ABENDUAK 10, OSTIRALA

Kontzertua: Mugaldekoak.
Arraunetxan, 19:00etan.

ABENDUAK 11, LARUNBATA

Azoka: Jostailu Erabilien 11. Azoka.
Salatxo aretoan, 10:30etik 14:00etara.

ABENDUAK 13, ASTELEHENA

Ipuin kontaketa: Miriam Mendoza.
Kultur Etxeko areto nagusian, 18:00etan.

ABENDUAK 17, OSTIRALA

Hitzaldia: 'Gabonak eta aulki hutsak etxean. Nola egin aurre?'.
Hizlaria: Eider Otxoa dolu terapeuta.
Salatxo aretoan, 19:00etan.

ABENDUAK 17, OSTIRALA

Kontzertua: Ibilbedi
Arraunetxan, 19:00etan.

ABENDUAK 20, ASTELEHENA

Ipuin kontaketa: Leire Zinkunegi.
Kultur Etxeko areto nagusian, 17:30ean.

ABENDUAK 23, OSTEAGUNA

Kontzertua: Musika Eskolakoan
Gabonetako kantaldia.
Herriko Plazan, 18:00etan.

ABENDUAK 31, OSTIRALA

Kirol proba: San Silbestre lasterketa.
Herriko Plazan, 11:00etan.

AIA

ABENDUAK 18, LARUNBATA

Ikuskizuna: 'Losers' antzezlan.
Aiako probalekuan, 19:00etan.

ABENDUAK 31, OSTIRALA

Automobilismo proba: Aiako VI.
Slaloma.
Ubegun industrialdean, 10:00etan.

ABENDUAK 31, OSTIRALA

Kirol proba: San Silbestre lasterketa.
Herriko plazan, 17:00etan.



KARKARA

Karkara pertsonaia aldizkariaren zein orrialdetan dagoen ezkutututa aurkitu behar da, eta erantzuna *karkara@karkara.eus* e-posta helbidera bidali azaroaren 18a baino lehen.

Saria: Izarra elektrogailuak eskeinita PHILIPSen SMART TV LED 4K telebista izango da. Karkarako Komunikazio Taldean bazkide izatea da baldintza bakarra.

Urriko Karkara aldizkarian Karkara pertsonaia non ezkutututa zegoen asmatu behar zen: 37. orrialdean zegoen ezkutututa, eta **Patxi Iturzaeta Lertxundi** bazkidea izan da irabazlea.



Puntua jarrita

Iñaki Verhegge.
Doinua: Haizeak bidali du.

1

Parrandatik parkera a ze gozamen!

Bat itxi eta gero
segidan bestera,
baten azkena eta
bestean aurrena
txirristan izaten da
subidoi handiena.

2

Gauen ikusten dira
helduak umetzen
eta parkean berriz
umeak heldutzen,
zenbat txorakeria
ditudan entzuten
gurasok aditzean
haurrez hitz egiten.

3

Onena izango deu
ura edatea
kolunpiyon ibiliz
haizea hartzea,
buruko mina latza
hau bai peajea,
aitatasunarena
bai dela ajea!

Hurrengo bertsolaria:

Jon Itxaso.

Puntua:

Ikusiko al gea
arratsalden parken?

Hasi Bertsotan atalean puntuka ariko dira bertsolariak. Oraingoan Iñaki Verheggeri jarri dio puntua Ibon Arrutik: "Parrandatik parkera a ze gozamen!". Hurrengoari ere jarri dio puntua.



BIYONA

BARNE DISEINUA ETA ERREFORMAK | INTERIORISMO Y REFORMAS

etxea sukaldea
bainugela ...
leihoak
etxeko altzariak


eraberritzekotan?



Bisita gaitzazu




Geltoki bidea, 1 · ZARAUTZ · ☎ 943-13 50 16 · www.biyona.net





AGINAGA

— ALTZARIAK —



%
20

KOLTXOIAK

%
30

**OHE
OINARRIAK**

**SORTAK
SOMIERRA
KANAPE
OSAGARRIAK**

%
40

%
50

Estrata 3. Pab. Errasti (Aginaga Auzoa) 20170 USURBIL

Tel./FAX-a: 943-36 93 59 · Mugikorra: 676 35 56 35

mueblesaguinaga@mueblesaguinaga.com